El trabajo y esfuerzo de los y las ertzainas encuentra su reconocimiento en la alta valoración que la ciudadanía otorga a la Institución. En el año 2022, la sociedad vasca refrenda a la Ertzaintza como la tercera institución mejor valorada.

La cercanía, la confianza y el compromiso, son los valores que la ciudadanía destaca en la Ertzaintza, comprometida con la sociedad a la que sirve que promueve la convivencia la seguridad y bienestar de las personas, mientras se muestra como una policía integrada y accesible.

El reconocimiento social hacia la Ertzaintza estimula aún más el trabajo de sus profesionales, quienes buscan corresponder a la ciudadanía vasca superándose en el trabajo diario y persiguiendo la excelencia.


ERAKUNDEEKIKO/INSTITUZIOEKIKO KONFIANTZA*

CONFIANZA EN LAS ORGANIZACIONES / INSTITUCIONES*



*Iturria: DeustoBarometro Soziala, 2022ko negua. Galdera honi erantzuten zaio: Zein neurritan fidatzen zara erakunde edo instituzio hauetaz? 0tik (ez naiz ezertaz fidatzen) 10era (konfiantza osoa dut)

* Fuente: Deustobarómetro Social invierno 2022. Se responde a la pregunta: ¿En qué medida confías en cada una de las siguientes organizaciones o instituciones? Escala de 0 (no confío nada) a 10 (confío plenamente)



Hamabost txapel, hamabost hilotz,
mina bat eta bakarra,
baina herrarik gabe ondua
da gure herri zaharra.
Sortze bereko ondarea du
gu zerbitzatu beharra;
iraganeko tanten arrastoz
marrastu arren biharra,
odol horrexek emango digu
kuraia eta indarra.

Xabier Euzkitze





02.

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO
ETA METEOROLOGIA

ATENCIÓN DE EMERGENCIAS
Y METEOROLOGÍA





AURKIBIDEA

1. SOS DEIAK- EUSKADIKO LARRIALDIK KOORDINATZEKO ZENTROA
2. ABISU, ALERTA ETA ALARMA METEOROLOGIKOAK
3. BABES ZIBILEKO JARDUKETAK ETA GERTAKARIAK
4. ARAUGINTZA-JARDUERAK
5. PLANAK
6. BATZORDEAK, HITZARMENAK ETA PROTOKOLOAK
7. SIMULAKROAK ETA JARDUKETAK
8. ZABALKUNDEA
9. PRESTAKUNTZARAKO LANKIDETZA
10. EKITALDI INSTITUZIONALAK
11. JARDUNALDIK ETA TOPAKETAK
12. BOLUNTARIOAK
13. PROIEKTU EUROPARRAK

ÍNDICE

1. CENTRO DE COORDINACIÓN DE EMERGENCIAS DE EUSKADI SOS DEIAK
2. AVISOS, ALERTAS Y ALARMAS METEOROLÓGICAS
3. ACTUACIONES Y EPISODIOS DE PROTECCIÓN CIVIL
4. ACTIVIDADES NORMATIVAS
5. PLANES
6. COMISIONES, CONVENIOS Y PROTOCOLOS
7. SIMULACROS Y EJERCICIOS
8. DIVULGACIÓN
9. COLABORACIÓN EN FORMACIÓN
10. ACTOS INSTITUCIONALES
11. JORNADAS Y ENCUENTROS
12. VOLUNTARIADO
13. PROYECTOS EUROPEOS

1. SOS DEIAK- EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA

SOS Deiak Euskadiko larrialdiak Koordinatzeko Zentroak 2022. urtean, 112 telefonoaren bitartez, **761.575** dei jaso eta **241.142** gertakari kudeatu zituen.

Kudeatutako gertakari gehienak honela bana daitezke: larrialdi medikoak (%23,83), bide publikoan arriskuak antzematea (% 16,12), herritarren segurtasuna (%15,93) pertsonen istripuak (%14,33), eta trafiko istripuak (%8,40).

Hartutako deietatik **412.517** Bizkaian izan ziren, **230.711** Gipuzkoan eta **118.347** Araban.

Era berean, SOS Deiak APPa aldi horretan **72.430** aldiz deskargatu zen eta, horren bidez, 752 gertakari kudeatu ziren; eCall sistemak **1.313** larrialdi-dei sortu zituen eta horietako 208 izan ziren gertakari errealengatik.

1. CENTRO DE COORDINACIÓN DE EMERGENCIAS DE EUSKADI SOS DEIAK

El Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi, SOS Deiak, atendió en 2022, a través del teléfono 112, **761.575** llamadas y gestionó **241.142** incidentes.

La mayor parte de los incidentes gestionados estuvieron relacionados con las urgencias médicas (23,83 %), la detección de peligros en la vía pública (16,12 %), la seguridad ciudadana (15,93 %), los accidentes de personas (14,33 %) y los accidentes de tráfico (8,40 %).

En cuanto a las llamadas atendidas, en Bizkaia se produjeron **412.517**, en Gipuzkoa **230.711** y en Araba **118.347**.

A su vez, la APP de SOS Deiak registró durante el mismo periodo **72.430** descargas acumuladas que se plasmaron en 752 incidentes gestionados, mientras que el sistema eCall generó **1.313** llamadas de emergencia de las cuales 208 obedecieron a incidentes reales.




**2022AN
ERANTZUNDAKO
DEIAK**

(lurraldeak)

**LLAMADAS ATENDIDAS
EN 2022**

(por territorio)




**2022AN
KUDEATUTAKO
GERTAKARIAK**

(lurraldeak)

**INCIDENTES GESTIONADOS
EN 2022**

(por territorio)





1.1 ADVANCED MOBILE LOCATION (AML) SISTEMA

Otsailaren 16an, Eusko Jaurlaritzak SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan deiak lokalizatzeko sistema berri bat ezarri zuen, Advanced Mobile Location (AML). Horren bidez, larrialdietako zerbitzuek lokalizatu ditzakete laguntza behar duten pertsonen egindako deiak.

AML sistemak telefono adimendunek ematen dituzten aukerak aprobetxatzen ditu, eta telefono horiek detektatzen dutenean erabiltzailea 112ra deitzen dabilela, automatikoki kokapena kalkulatzeko funtzioak aktibatzen dituzte. Kokapena zehazteko GPSa, hurbileko puntu wifiak eta mugikorren operadoreen antenak erabiltzen dituzte eta, azkenik, kokapenaren koordenaden berri emateko mezu bat bidaltzen dute laguntza deia jaso duen zerbitzura.

Horrela, larrialdietako zerbitzuek are azkarrago jardun dezakete, tresna horrek zehaztu baitezake 112ra deitu duenaren kokapena zein den, 15 eta 20 metro bitarteko erradioan.

1.1 SISTEMA ADVANCED MOBILE LOCATION (AML)

El 16 de febrero, el Gobierno Vasco implantó en el Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi, SOS Deiak, el nuevo sistema de localización de llamadas efectuadas por aquellas personas necesitadas de auxilio por parte de los servicios de emergencias, Advanced Mobile Location (AML).

El sistema **AML** se basa en las propiedades de los denominados teléfonos inteligentes, de manera que cuando detectan que la persona usuaria efectúa una llamada al 112 activan automáticamente las funciones dirigidas a calcular su posición a partir del GPS, puntos wifi próximos y antenas de operadores móviles enviando, finalmente, un mensaje con las coordenadas de ubicación al servicio que atiende la llamada de socorro.

De este modo, los servicios de emergencias actúan con mayor rapidez si cabe ya que esta herramienta es capaz de determinar la posición de quien contacta con el 112 en un radio que oscila entre los 15 y los 20 metros.

1.2 EMAKUMEEN SEGURTASUNA SUSTATZEKO KANPAINA

Apirilaren 3an hasi zen herritarrak SOS Deiakeko APPa deskargatzera animatzeko sentsibilizazio-kanpaina, ikus-entzunezko formatu desberdinetan. Tresna horren barruan pertsonak geolokalizatzeko sistema bat dago, eta horri esker bilaketa- erreskate- eta laguntza-denborak laburtu ahal dira.

Berrikuntza izan zen emakumeen babesa azpimarratu nahi izan zela, eta horregatik garrantzia eman zitzaizen aplikazioan emakumeen babesarako dauden zuzeneko loturei: "Sexu-erasoa" eta "Genero-indarkeria".

1.3 GEOLOKALIZAZIOARI BURUZKO INFORMAZIO- POSTEAK

Eusko Jaurlaritzaz azaroan Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Mendiak eta Habitata Kudeatzeko Zerbitzuarekin lankidetzan aritu zen, lurralde historiko horretan geolokalizazioari buruzko informazio-posteak jartzeko, larrialdi-arazoak dituzten naturzaleei begira .

Poste horiek, besteak beste, Gipuzkoako Mendi Federazioak sustatutakoek, eremu zehatzaren kokapenari buruzko informazioa daukate eta horrela laguntza-lanak arintzen dira.

1.2 CAMPAÑA DIRIGIDA A FOMENTAR LA SEGURIDAD DE LAS MUJERES

El 3 de abril dio comienzo, en diferentes formatos audiovisuales, una campaña de sensibilización para animar a la ciudadanía a descargar la APP de SOS Deiak, herramienta que incluye un sistema de geolocalización de personas que permite acortar los tiempos de búsqueda, rescate y auxilio.

Como novedad se puso el acento en la protección de las mujeres incidiendo para ello en los enlaces directos disponibles en la aplicación: "Agresión sexual" y "Violencia de género".

1.3 POSTES INFORMATIVOS DE GEOLOCALIZACIÓN

El Gobierno Vasco colaboró a lo largo del mes de noviembre con el Servicio de Montes y Gestión de Hábitats de la Diputación Foral de Gipuzkoa en la instalación en los montes de este territorio histórico de postes informativos de geolocalización dirigidos a aquellas personas amantes de la naturaleza que sufran problemas relacionados con las emergencias.

Los nuevos indicativos, promovidos, entre otros organismos, por la Federación Guipuzcoana de Montaña, ofrecen información relacionada con la ubicación de la zona concreta agilizando de este modo las labores de auxilio.



1.4 ES-ALERT SISTEMA

Azaroaren 10ean, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan lehen aldiz probatu zen **ES-Alert** sistema europar berriaren funtzionamendua. Sistema horrek larrialdi handi edo hondamendi baten eraginpean egon litezkeen herritarrei abisuak bidal diezazkieke.

Proba hori nagusiki Bilboko Txurdinaga eta Begoñako Andra Mari auzoetako auzokidekin egin zen. Horiek dispositibo mugikorren bidez abisu simulatu bat jaso zuten, hau da, lehenengo txistu bat entzun zuten eta jarraian mezu bat, intzidentzia hori sistema berria probatzeko baino ez zela azaltzen zuena.

Horri dagokionez, azpimarratu behar da EAEk 2020. urtetik daukala herritarrei abisatzeko bere sistema propioa (alderantzizko 112a), 112 SOS Deiak APPan integratuta dagoena; eta horren bidez larrialdi-arriskua eraginpean eremu zehatz batean dauden pertsonak jaso ditzakete arrisku egoerei buruzko abisuak. Hortaz, Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiak sustatutako sistema berri hori Euskadin dagoeneko ezarrita dauden autobabes-tresnen osagarria izan daiteke.

1.5 SOS DEIAK APP-AREN FUNTZIONALITATE BERRIA

112 SOS Deiak APPak bere zerbitzu-eskaintzan beste funtzionalitate bat gehitu zuen, hau da, larrialdiarekin lotutako irudiak bidaltzeko aukera. Horrela, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak informazio gehiago edukitzen duenez, kasu honetan informazio bisuala, intzidenteei buruzko ezagutza ere handiagoa izaten da, eta horrek herritarrekiko arreta hobetzen laguntzen du.

1.4 SISTEMA ES-ALERT

El 10 de noviembre tuvo lugar en el Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi la primera prueba de funcionamiento del nuevo sistema europeo **ES-Alert**, especializado en el envío de avisos a aquellos sectores de la población que pudieran verse afectados por una gran emergencia o catástrofe.

Dicha prueba se centró fundamentalmente en los vecinos y vecinas de los barrios bilbaínos de Txurdinaga y Andramaria de Begoña quienes recibieron, vía dispositivo móvil, un aviso simulado consistente en un pitido acompañado de un mensaje en el que se explicaba que la incidencia era tan solo una prueba de este nuevo sistema.

A este respecto, cabe destacar que la CAV dispone desde el 2020 de su propio sistema de avisos a la población (112 Inverso), integrado en la APP 112 SOS Deiak, a través del cual se pueden recibir avisos de situaciones de riesgo en las zonas concretas en las que se encuentran las personas afectadas, por lo que la nueva iniciativa, auspiciada por la Dirección General de Protección Civil y Emergencias, complementa las herramientas de autoprotección ya implantadas en Euskadi.

1.5 NUEVA FUNCIONALIDAD DE LA APP SOS DEIAK

La APP 112 SOS Deiak incorporó una nueva funcionalidad a su oferta de servicios basada en la posibilidad de enviar imágenes relacionadas con cualquier tipo de emergencia. De este modo, el Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi mejoró la conciencia situacional de los posibles incidentes disponiendo de más información, en este caso visual, lo que redundará en una mejor atención a la ciudadanía.

2.


ABISU, ALERTA ETA ALARMA METEOROLOGIKOAK

Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarako (LAEMZ) abisuen, alerten eta alarmen sistema funtsezko tresna bat da, meteorologia-fenomeno kaltegarrien mehatxuak eta horiek eragin ditzaketen kalte material eta pertsonalak gutxitu ahal izateko.

2.

AVISOS, ALERTAS Y ALARMAS METEOROLÓGICAS

Para la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología (DAEM) el sistema de avisos, alertas y alarmas es una herramienta fundamental a la hora de minimizar las amenazas y los posibles daños personales y materiales provocados por la meteorología adversa.



METEORO ABISUAK 2022 / AVISOS POR METEORO 2022

ALDAGAI METEOROLOGIKOAK VARIABLES METEOROLÓGICAS	Abisu horiak Avisos amarillos	Alerta laranja Alertas naranjas	Alarma gorriak Alarmas rojas	GUZTIRA TOTAL
PREZIPITAZIOAK / PRECIPITACIONES				
Jarraituak / Persistentes	13			13
Handiak / Intensas	13			13
ELURTEAK / NEVADAS	11	2		13
HAIZEA / VIENTO				
Eremu arriskutsuak / Zonas expuestas	20			20
Arriskurik gabeko eremuak / Zonas no expuestas	10			10
ITSASOA/KOSTALDEA / MAR/COSTA				
Uhin-garaiera - nabigazioa / Altura de ola-navegación	32	1		33
Galernak / Galernas	8			8
Kostaldearen gaineko eragina / Impacto en costa	22	1		23
Zipriztinak / Rociones	2			2
TENPERATURAK / TEMPERATURAS				
Izozteak / Heladas	39			39
Altuak eta jarraituak/ Altas persistentes	14	2		16
Altuak eta muturrekoak / Altas extremas	23	10	4	37
BASO-SUTEAK / INCENDIOS FORESTALES	39	13	2	54
GUZTIRA / TOTAL	246	29	6	281

2022. urtean zehar, Eusko Jaurlaritzak guztira 246 abisu hori aktibatu zituen, 29 alerta laranja eta 6 alarma gorri. Nabarmendu behar da egun berean abisu hori bat baino gehiago elkar daitezkeela, alerta laranjaren bat, eta alarma gorri batzuk ere bai, fenomeno desberdinekin lotuta.

A lo largo del 2022, el Gobierno Vasco activó un total de 246 avisos amarillos, 29 alertas naranjas y 6 alarmas rojas. Es importante señalar que en una misma jornada pueden concurrir varios avisos amarillos, alguna alerta naranja, e incluso algunas alarmas rojas relacionadas con distintos fenómenos.



ABISUAK NAHIERAN

Era berean, *Abisuak nahieran* zerbitzua iaz 4.203 erabiltzaile izatera heldu zen.

2.1 GERTAKARI METEOROLOGIKO AIPAGARRIAK

EAEn, 2022an, zenbait meteorologia gertakari kaltegarri erregistratu ziren. Hona hemen aipagarrienak:

- ▶ Urtarrilaren 9a eta 10a bitartean, fronte batzuk igaro ziren eta prezipitazio jarraituak eta ugarriak eragin zituzten isurialde kantauriarrean eta isurialde mediterraneoaren zati batean. Azpimarratzekoa da metatuak Eskasko estazioan 48 orduan 225 l/m²koak izan zirela eta Elorrikoan 24 orduan 107 l/m²koak. Euriteen ondorioz, Ibaizabal, Baias, Zadorra, Deba, Oria eta Urumea ibaien arroetan arazoak egon ziren, horietan uholdeen maila laranja gainditu baitzen.
- ▶ Apirilaren lehen bi egunetan elurra egin zuen kota baxuetan, 300 eta 500 metro bitarteko altueran. Elurte horien ondorioz, Arabako Lautadako puntu batzuetan elur-lodiera 10 eta 20 zentimetro bitartekoa izan zen. Halaber, ezegonkortasun handiaren ondorioz, isurialde kantauriarrean ekaitza eta txingor-zaparradak sortu ziren, eta horiek Donostialdean trafiko-arazoak eragin zituzten galtzadan txingorra zegoelako.

AVISOS A LA CARTA

De igual modo, el servicio *Avisos a la carta* alcanzó el año pasado la cifra de 4.203 personas usuarias.

2.1 EPISODIOS METEOROLÓGICOS RESEÑABLES

Varios han sido los episodios de meteorología adversa registrados en Euskadi a lo largo del año pasado. Los más destacados fueron los siguientes:

- ▶ Entre el 9 y el 10 de enero, el paso de varios frentes produjo precipitaciones persistentes y muy abundantes en toda la vertiente cantábrica y parte de la mediterránea, destacando los acumulados de 225 l/m² en 48 horas en la estación de Eskas y los 107 l/m² en 24 horas de Elorrio. Como consecuencia de las lluvias, se registraron problemas en las cuencas de los ríos Ibaizabal, Baias, Zadorra, Deba, Oria y Urumea, donde se llegó a sobrepasar el nivel naranja de inundación.
- ▶ Durante los dos primeros días del mes de abril se produjeron nevadas en cotas relativamente bajas, entre los 300 y los 500 metros de altitud. Estas nevadas dejaron espesores, de entre 10 y 20 centímetros en puntos de la Llanada Alavesa. Asimismo, fruto de la gran inestabilidad, se generaron tormentas y granizadas en la vertiente



BFA argazkia
Fotografía DFB/BFA

- ▶ Uztailaren 11tik 18ra bitartean, Euskadiri eragin zion bero-boladak gehieneko temperaturen marka historikoak apurtu zituen, baita marka absolutuak ere (urteko hil guztiak kontuan hartuta) (ikusi taula). Bero-boladako datu maximoa 18an erregistratu zen, Gardeako (Laudio) estazioan, temperatura 43,6 °C-koa izan baitzen.
- ▶ Temperatura altuen zein egun horietan gertatu ziren baso-sute ugarien ondorioz, Eusko Jaurlaritzak 6 alarma gorri aktibatu behar izan zituen (horietako 4 muturreko temperatura altuengatik eta 2 baso-suteen arriskuagatik).

cantábrica que provocaron problemas de tráfico en Donostialdea debido al granizo presente en la calzada.

- ▶ Entre el 11 y el 18 de julio, Euskadi se vio afectada por una ola de calor que trajo consigo récords históricos de temperaturas máximas e incluso récords absolutos (teniendo en cuenta todos los meses del año) (Ver Tabla). El valor máximo del episodio se registró el día 18 en la estación de Gardea (Laudio/Llodio) con 43,6 °C.
- ▶ Tanto las altas temperaturas, como los numerosos incendios forestales que se originaron esos días, obligaron al Gobierno Vasco a activar 6 alarmas rojas (4 de ellas por temperaturas altas extremas y 2 por riesgo de incendios forestales).

UZTAILEKO EFEMERIDEEN TAULA / TABLA DE EFEMÉRIDES JULIO

ESTAZIOA / ESTACIÓN	T. maximoa efemeride berria T. máxima efeméride nueva	Aurreko efemeride absolutua Efeméride absoluta anterior	
	T (°C)	T (°C)	Data / Fecha
Zambrana	41,7	41,3	29/06/2019
Espejo	41,4	41	10/08/2012
Ameraun	40,1	39,7	04/08/2003
Ordunte	42,5	40,9	04/08/2003
Arrasate	42,9	42,7	10/08/2012
Lasarte	41,9	41,3	04/08/2003
Oleta	41,3	40,2	23/07/2019
Urkulu	41,2	40,3	04/08/2003
Venta Alta	40,2	39,6	30/07/2020
Altzola	41,6	41,2	26/06/2011

Euskalmeten arabera, aurtengo urria serie historikoe-tatik hilerik epelena eta lehorrena izan zen (bakarrik urriko hilei dagokienean), eta urriko bigarren hamabostaldian tenperatura altuek, zoruaren lehortasunak eta hegoaldeko haizearen intentsitateak eragin zuten baso-sute batzuk aktibatzea, eta bereziki azpimarratu behar da Balmasedan gertatutakoa.

En la segunda quincena del mes de octubre, un mes calificado por Euskalmet como el más cálido y seco de las series históricas, (en lo que se refiere única y exclusivamente a los meses de octubre), las condiciones asociadas a las altas temperaturas, la sequedad del suelo y la intensidad del viento sur dieron paso a la activación de varios incendios forestales, destacando sobremanera el declarado en Balmaseda.



2.2 EKIMENAK ETA JARDUERAK

Martxoaren 23an, Meteorologiaren Munduko Egunean, Josu Erkoreka Lehenengo lehendakariorde eta Seguritasuneko sailburua buru zela, EuskalEguraldia elkarte berria aurkezteko ekitaldia egin zen. Elkarte horren espezialitatea da Euskalmeti sare sozialen bidez informazio hau ematea (testuak, grafikoak, argazkiak eta bideoak): unean bertan gertatzen ari diren edo gertatzeaz dauden egoera meteorologiko kaltegarriak buruzkoa eta egoera horiekin lotutako arrisku eta arazoak buruzkoa.

Beste gai bati helduta, maiatzaren 16an Goiango (Araba) estazio hidro-meteorologikoa martxan jarri zen. Ekipamendu berri hori instalatu ahal izan zen hauen laguntzari esker: Euskal Meteorologia Agentzia (Euskalmet), Uraren Euskal Agentzia (URA), Arabako Foru Aldundiaren Araba Garapen Agentzia sozietatea eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.

Goiango estazioan eremu horretako datu meteorologikoak hartzen dira eta, horrez gain, Urrunagako urte-giko isurketen ondoriozko Zadorra eta Santa Engrazia ibaietako uraldiak kontrolatzen dira.

2.2 INICIATIVAS Y ACTUACIONES

El 23 de marzo, coincidiendo con el Día Meteorológico Mundial, el Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, Josu Erkoreka, presidió el acto de presentación de la nueva asociación EuskalEguraldia, especializada en proporcionar información (textos, gráficos, fotografías y vídeos) a Euskalmet, a través de las redes sociales, de aquellas situaciones meteorológicas adversas manifestadas en tiempo real, o a punto de producirse, así como de los riesgos y problemáticas asociadas a las mismas.

En otro orden de cosas, el 16 de mayo se puso en marcha la estación hidro-meteorológica de Goain (Araba). La instalación de este nuevo equipamiento fue posible gracias a la colaboración de las agencias vascas de meteorología (Euskalmet) y del agua (URA), de la Sociedad Álava Agencia de Desarrollo de la Diputación de Álava y de la Confederación Hidrográfica del Ebro.

La labor desarrollada por la estación de Goain se centra en la toma de datos hidro-meteorológicos de la zona mejorando, al mismo tiempo, el control de las avenidas de los ríos Zadorra y Santa Engracia cuando se producen vertidos procedentes del embalse de Urrunaga.



Halaber, uztailaren 28an Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Ingeniaritza Eskolak (EHU) buia ozeano-meteorologiko bat instalatu zuten Bizkaiko uretan, Gorrondatxe (Azkorri), Barinatxe (La Salvaje) eta Arrietara-Atxabiribil hondartzetatik hurbil.

Buia horrek itsasoaren egoerari buruzko informazioa ematen du, bainulari, surflari eta nabigatzaileen segurtasuna bermatzeko helburuarekin; eta begiratzen du galerna dagoenean itsas-perturbazioek zer bilakaera eta zer intentsitate daukaten.

Gainera, ekipamendu berri horrek etengabe ematen ditu olatuen ezaugarri buruzko garrantzizko datuak (altuera, norabidea eta olatuen periodoa), kostaldetik hurbil dagoen itsas-aktibitate handiko puntu zehatz bat oinarri hartuta. Erreferentzia-puntu zehatz hori surf egiteko ezagunak diren hondartza batzuetatik hurbil dago.

Asimismo, el 28 de julio, el Gobierno Vasco y la Escuela de Ingeniería de Bilbao UPV/EHU instalaron una boya océano-meteorológica en aguas de Bizkaia, concretamente en las proximidades de las playas de Gorrondatxe (Azkorri), Barinatxe (La Salvaje) y Arrietara-Atxabiribil.

La nueva boya ofrece información del estado de la mar enfocada a la seguridad de bañistas, surfistas y navegantes y realiza labores de vigilancia centradas en la evolución e intensidad de las perturbaciones marinas en situaciones de galerna.

Además, el nuevo equipamiento proporciona de forma continua datos de interés relativos a las condiciones del oleaje (altura, dirección y periodo de las olas) a partir de un punto concreto próximo a la costa caracterizado por la gran actividad marítima. Dicho punto de referencia se sitúa cerca de varias playas conocidas por la práctica de surf.

3. BABES ZIBILEKO JARDUKETAK ETA GERTAKARIAK

3.1 BASO-SUTEAK

Baso-suteek 2022an Euskadiko Larrialdietako zerbitzuen jardueraren zati handi bat hartu zuten. Euskadin tenperatura altuek, landarediaren lehortasunak eta haizeak eragin zuten uztailetik urrira bitartean baso-sute gehiago gertatzea, besteak beste, Arastortz mendian (Aralar mendia) gertatutakoa, Arabako Mendozan, Garaion, Mendiolan, Etura/Gebaran, Argandoñan, Lantziegon, Zambranán, Santa Cruz del Fierron eta Agurainen gertatutakoak, eta Bizkaiko Balmasedan eta Berangon gertatutakoak.

Horren ondorioz, uztailaren 15ean Eusko Jaurlaritzak Base Suteetarako Larrialdi Plan Berezia larrialdi-fasera igaro zuen, eta murrizketak eta debekuak ezarri zizkien arrisku larria sor zezateken erabilerei eta jarduerari, batez ere, landa lurzoruetan edo zoru urbanizaezinetan.

3. ACTUACIONES Y EPISODIOS DE PROTECCIÓN CIVIL

3.1 INCENDIOS FORESTALES

Los incendios forestales marcaron en buena medida la actividad de los servicios vascos de emergencias a lo largo de 2022. En Euskadi, las altas temperaturas, la sequedad de la vegetación y la acción del viento facilitaron su proliferación entre los meses de julio y octubre, siendo los más destacados los declarados en el monte Arastortz (Sierra de Aralar), en los enclaves alaveses de Mendoza, Garaio, Mendiola, Etura/Guevara, Argandoña, Lantziego, Zambrana y Santa Cruz del Fierro y Salvatierra y en los entornos vizcaínos de la villa de Balmaseda y del municipio de Berango.

Esta situación provocó que el 15 de julio, el Gobierno Vasco elevara a fase de emergencia el Plan Especial de Riesgo de Incendios Forestales estableciendo restricciones y prohibiciones para determinados usos y actuaciones susceptibles de entrañar grave riesgo, sobre todo en suelo rural, rústico o no urbanizable.



Ia hiru hilabete geroago, urriaren 23an, arrisku-indizeak altuak zirelako eta Bizkaian baso-sute batzuek sortu zirelako, berriz ere aktibatu zen Baso Suteetarako Larrialdi Plan Berezia larrialdi fasean; eta horrexegatik, hiru egun geroago, Rodrigo Gartzia Seguritasuneko sailburuordeak murrizketak eta debekuak berriro aplikatzeko ebazpen bat eman zuen.

Neurri horien helburua zen kostaldeko eta Kantauri isurialdeko barnealdeko (Gipuzkoa, Bizkaia eta Aiarako Kuadrilla/Araba) landa-lurzoruetan edo zoru urbanizaezinetan arrisku larria eragin zezaketen jarduerak murriztea.

Era berean, ekainaren 19an, Eusko Jaurlaritzak koordinatuta, hiru aldundietako eta Euskadiko hiru hiriburuuetako udaletako suhiltzaileak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi Brigadako baliabideak Nafarroara joan ziren suteak itzaltzeko lanetan laguntzeko, erki-dego horrek jasan baitzuen suteen eragin handiena.

250 efektiboz osatutako talde horrek, hiru lurralde historikoetako suhiltzaile-etxe nagusietatik, suteak itzaltzeko 20 ibilgailu inguru eta bestelako ekipamenduak ere eraman zituen, baita Arabako Mendi Zerbitzuak lagatako ibilgailu berezi bat ere.

Euskadiko operatiboak nagusiki eremu hauetan lan egin zuen: San Martín (San Martín Unx, Uxue, Lerga, Galipentzu eta Oleta) eta Gares (Artazu, Sarria, Argiñaritz eta Erreniega mendiko iparraldean eta hegoaldean).

Prácticamente tres meses más tarde, el 23 de octubre, debido a los altos índices de riesgo y al desencadenamiento de varios incendios forestales de entidad en Bizkaia, volvió a activarse el Plan especial de Riesgo por Incendios Forestales en fase de emergencia, medida que supuso que tres días después, el Viceconsejero de Seguridad, Rodrigo Gartzia, emitiera una resolución dirigida a aplicar nuevamente diversas restricciones y prohibiciones.

Dichas medidas estuvieron orientadas en esta ocasión a limitar determinadas prácticas que pudieran entrañar grave riesgo en suelo rural, rústico o no urbanizable de la zona costera y vertiente cantábrica interior (Gipuzkoa, Bizkaia y Cuadrilla de Aiala/Araba).

Igualmente, el 19 de junio, coordinados por el Gobierno Vasco, bomberos de las tres diputaciones y de los tres ayuntamientos de las capitales vascas, así como recursos de la Brigada de Montes de la Diputación Foral de Bizkaia, se trasladaron a Navarra, una de las comunidades más afectadas por los incendios, a fin de prestar su ayuda en las tareas de extinción.

Dicho grupo, compuesto por 250 efectivos, aportó, además, alrededor de 20 vehículos de extinción y otros equipamientos procedentes de los principales parques de bomberos de los tres territorios históricos, así como un vehículo especial cedido por el Servicio de Montes de Araba.

Las labores llevadas a cabo por el operativo vasco se centraron en cuatro grandes incendios destacando las intervenciones llevadas a cabo en las zonas de San Martín (San Martín de Unx, Ujué, Lerga, Gallipienzo y Olleta) y Puente la Reina (Artazu, Sarria, Argiñariz y en las caras norte y sur de la Sierra del Perdón).





3.2 BESTE JARDUKETA ETA GERTAKARI AIPAGARRI BATZUK

Iaz LAEMZek kausa desberdinen ondoriozko gertakari garrantzitsu batzuetan esku hartu zuen. Aipagarrienak hauek izan ziren:

- ▶ Otsailaren 5ean eta 6an emakume baten bila hasi ziren, Olarizun (Araba) zero azpiko tenperaturak zeudela. Gertakariak ondo amaitu zuen, emakumearen telefonoaren geolokalizazioari esker.
- ▶ Otsailaren 6an Bizkaiko Basauri Udalerriko 3 etxebizitza-bloke hustu behar izan zituzten, jarduerarik gabeko pabilioi industrial batean sute bat sortu zelako.
- ▶ Bidasoa ibaia martxoan eta apirilean historia tristen protagonista izan zen, bertan hil horietan Irundik Biriatura joan nahi zuten bi gazte bilatzen ibili baitziren.
- ▶ Martxoaren 15ean, turista iparramerikar bat hil zen, Zurriola hondartzan (Donostia) paddel surf egiten zebilela. Haizeak Saguesko arroken eremura eramán zuen eta.

3.2 OTRAS ACTUACIONES Y EPISODIOS RELEVANTES

A lo largo del año pasado, la DAEM intervino en diversos incidentes de entidad relacionados con diferentes casuísticas, siendo los más relevantes los siguientes:

- ▶ Durante los días 5 y 6 de febrero se activó la búsqueda de una mujer con temperaturas bajo cero en Olarizu (Araba). El incidente se resolvió de forma positiva gracias a la geolocalización de su teléfono móvil.
- ▶ El 6 de febrero fueron desalojados 3 bloques de viviendas en la localidad vizcaína de Basauri tras declararse un incendio en un pabellón industrial carente de actividad.
- ▶ El río Bidasoa se convirtió en triste protagonista en marzo y abril, meses en los que se acometieron las búsquedas de dos jóvenes que pretendían trasladarse de Irun a Biriatur.
- ▶ De igual modo, el 15 de marzo, un turista norteamericano perdió la vida en la playa de la Zurriola (Donostia) cuando practicaba paddel surf. El viento lo arrastró a la zona de rocas de Sagües.



- ▶ Zortzi egun geroago, bi anaia adindun hil ziren lotan zebiltzan bitartean, Okondoko (Araba) beren baserriak su hartu baitzuen.
- ▶ Martxoan ere, 29an, hain zuzen, Arabako hiri-buruko Gamarrako industrialdeko enpresa baten hiru pabilioik su hartu zuten. Vitoria-Gasteizko suhiltzaileak ibili ziren suteak itzaltzeko lanetan, zortzi orduz.
- ▶ Martxoaren 30ean, 25 urteko emakume bat eta bere haurtxoa hil ziren Bizkaiko Zaldibia Udalerrian, karbono monoxidoa arnasteagatik.
- ▶ Egun batzuk geroago, apirilaren lauan, hain zuzen, Bizkaiko Erandio Udalerriaren parean, Lutzana-Asua errepidean dagoen enpresa batean sute deigarri bat sortu zen.
- ▶ Apirilaren 22an, gazte bat hil zen Donostiako Etxadi kiroldegiko igerilekuan, igeriketa eta apnea ariketak egiten zituen bitartean.
- ▶ Ocho días más tarde, dos hermanos de edad avanzada fallecieron mientras dormían como consecuencia del fuego que afectó a su caserío ubicado en Okondo (Araba).
- ▶ También en marzo, concretamente el día 29, se produjo el incendio de tres pabellones pertenecientes a una empresa situada en el Polígono Gamarra de la capital alavesa. Las labores de extinción, llevadas a cabo por los bomberos de Vitoria-Gasteiz, se prolongaron por espacio de ocho horas.
- ▶ El 30 de marzo, una mujer de 25 años y su bebé fallecieron en el municipio vizcaíno de Zaldibia a causa de la inhalación de monóxido de carbono.
- ▶ Unos días más tarde, concretamente el cuatro de abril, se produjo un aparatoso incendio en una empresa situada en la carretera Lutzana-Asua a la altura de la localidad vizcaína de Erandio.
- ▶ El 22 de abril, un joven falleció en la piscina del polideportivo donostiarra de Etxadi mientras practicaba natación y realizaba ejercicios de apnea.

- ▶ Hilabete geroago, maiatzaren 21ean, Errenteriako eraikin batean sute bat gertatu zen. 18 pertsonak arreta jaso behar izan zuten kea arnasteagatik.
- ▶ Maiatzaren 27an beste sute bat gertatu zen, abandonatutako pabilioi batean sortu zen eta, horren ondorioz, Lasarte-Oriako auzokide batzuk konfinatu behar izan zituzten.
- ▶ Ekainaren 24an, nazionalitate britaniarreko turista bat Anboto mendian hil zen, Anbotoko Infernuko Zubia izeneko eremuan erori baitzen.
- ▶ Uztailaren 6an, Gorbeiaiko parke naturalean txango batean zebilen adingabe bat itota hil zen Baias ibaiko Sarriako putzuan.
- ▶ Hil horretan ere, 20an, sute handi bat gertatu zen Lemoako (Bizkaia) eraikin batean eta 20 auzokide hortik atera behar izan ziren. Antza denez, sutea Ibaizabal ibaiaren ondoko pabilioi baten beheko solairuan hasi zen eta hor bilduta zeuden plastikoez (berrogeita hamar tona) eta gasolioak (bidoietan sartutako 4.000 litro) erre-kuntza azkartzen lagundu zuten.
- ▶ Uztailaren 29a eta 30a bitartean, Kontxako badian nabigatzen zebiltzan zazpi pertsona erreskatatu zituzten. Laketontzia erdi hondoratuta zegoen Santa Klara irlaren eta Donostiako Tennis Elkarte Errealearen kostaldeko hormaren artean.
- ▶ Abuztuaren 27an alarma piztu zen Bilboko Portuan gertatutako sute deigarri baten ondorioz. Azkenean, suhiltzaileak eta atoiontzietako langileek lortu zuten erregai-andel batean sortutako sugarrak itzaltzea. Sutearen ondorioz, suhiltzaileen 16 dotazio mobilizatu behar izan ziren eta Santurtzi eta Zierbena Udalerriren ondoko errepide batzuk moztu behar izan zituzten.
- ▶ Ia hilabete geroago, irailaren 16an, eskalatzaille bat hil zen Nerbioi Ibaiaren Jauzian (Araba) erori baitzen. Hildakoa zegoen erremura heltzea zaila zen, eta horregatik erreskatea hainbat orduz luzatu zen.
- ▶ Un mes después, el 21 de mayo, se produjo un incendio en un edificio de Errenteria. 18 personas fueron atendidas por inhalación de humo.
- ▶ El 27 de mayo, un nuevo incendio, originado en esta ocasión en un pabellón abandonado, provocó el confinamiento de un grupo de vecinos y vecinas de Lasarte-Oria.
- ▶ El 24 de junio, un turista de nacionalidad británica perdió la vida en el monte Anboto tras sufrir una caída en el denominado Paso del Diablo.
- ▶ El 6 de julio, un menor que participaba en una excursión en la zona del parque natural de Gorbeia falleció ahogado en la poza de Sarria del río Baias.
- ▶ Ese mismo mes, el día 20, se produjo un incendio de grandes proporciones en un edificio de Lemoa (Bizkaia) que obligó al desalojo de 20 vecinos y vecinas. Al parecer, el foco se inició en la planta inferior de un pabellón, anexo al río Ibaizabal, en la que se almacenaban cincuenta toneladas de plástico, así como bidones con 4.000 litros de gasóleo, circunstancia que contribuyó a acelerar la combustión.
- ▶ Entre los días 29 y 30 de julio fueron rescatadas siete personas que navegaban en la bahía de la Concha. La embarcación de recreo se encontraba medio hundida entre la Isla de Santa Clara y el muro de costa del Real Club de Tennis.
- ▶ El 27 de agosto se desató la alarma como consecuencia de un llamativo incendio declarado en el Puerto de Bilbao. Finalmente, bomberos y remolcadores lograron sofocar las llamas originadas en un tanque de combustible. El fuego obligó a movilizar 16 dotaciones de bomberos y a cortar diversas carreteras aledañas a los municipios de Santurtzi y Zierbena.
- ▶ Prácticamente un mes después, el 16 de septiembre, un escalador perdió la vida en Salto del Nervión (Araba) tras sufrir una caída. El fallecido se encontraba en una zona de difícil acceso por lo que el rescate se dilató por espacio de varias horas.

- ▶ Urriaren 6an 200 ibilgailu kiskali ziren, Gipuzkoako Astigarraga Udalerriko desguaze bati eragin zion sute baten ondorioz.
- ▶ Lau egun geroago, urriaren 10ean, arrantzale bat hil zen Jaizkibeldik hurbileko uretan, Hondarribia parean.
- ▶ Azaroaren 10ean Hernaniko kiroldegi batean kloro-ihesa gertatu zen, igerilekuko uraren tratamendurako erabiltzen diren produktu kimikoak lekualdatzean gertatutako giza akats bategatik. Igerilekuaren barruan zeuden hogei pertsona inguruk arreta jaso behar izan zuten narritadurengatik, eta beste sei osasun-zentroetara eraman behar izan zituzten.
- ▶ El 6 de octubre, 200 vehículos resultaron calcinados como consecuencia de un incendio que afectó a un desguace de la localidad guipuzcoana de Astigarraga.
- ▶ Cuatro días más tarde, el 10 de octubre, un pescador falleció en aguas próximas a Jaizkibel, a la altura de Hondarribia.
- ▶ El 10 de noviembre se produjo una fuga de cloro en el polideportivo de Hernani como consecuencia de un error humano cometido en las labores de trasvase de productos químicos utilizados para el tratamiento del agua de la piscina. Una veintena de personas que se encontraban en su interior tuvieron que ser atendidas afectadas por irritaciones, mientras que otras seis fueron trasladadas a diversos centros sanitarios.





4. ARAUGINTZA-JARDUERAK

LAEMZek 2022an babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren arloan egindako araugintza-jarduerei dagokienez, nabarmendu behar da Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) pandemiaren ondoriozko osasun publikoko larrialdiei aurre egiteko konfiguratzeko prozedura.

4. ACTIVIDADES NORMATIVAS

Dentro de las actividades de carácter normativo desarrolladas por la DAEM a lo largo del 2022 en materia de protección civil y gestión de emergencias destacó el procedimiento de configuración del Plan de Protección Civil de Euskadi (LABI) frente a una emergencia de salud pública por pandemia.





5. PLANAK

2022. urtean, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak plan batzuk aurkeztu zituen erakunde desberdinetan eta plan horiek aldeko txostena jaso zuten.

5.1 BABES ZIBILEKO PLANIFIKAZIOA

PANDEMIA BATEN ONDORIOZ, OSASUN PUBLIKOKO LARRIALDI BATI AURRE EGITEKO, EUSKADIKO BABES ZIBILEKO PLANA - LARRIALDIEI AURRE EGITEKO BIDEA (LABI) KONFIGURATZEKO PROZEDURA

2022ko ekainaren 22an, Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen Osoko Bilkurak aldeko txostena eman zion Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI), pandemia baten ondoriozko osasun publikoko larrialdi bati aurre egiteko, konfiguratzeko prozedurari. Prozedura horren helburua da, COVID 19aren krisian lortutako esperientzian oinarrituta, erakundeen arteko erantzun-gaitasuna hobetzea, berriz ere bizitakoa bezalakoa edo horren antzeko neurria duen beste bat gertatuko balitz, horri aurre egin ahal izateko.

Ekimen hori testuinguruan jartzeko eta justifikatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Babes Zibilaren eta Osasun Publikoaren arloko eskumenak kontuan hartu ziren, horrelako larrialdi baten ezaugarriak azaldu ziren eta LABIk COVID-19ren ondoriozko larrialdian izandako papera aztertu zen; eta azkenik, prozeduraren edukia aurkeztu zen plan horretako puntu zehatzen interpretazioan oinarrituta.

5. PLANES

A lo largo del 2022, la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología presentó varios planes ante distintas instituciones, los cuales fueron informados favorablemente.

5.1 PLANIFICACIÓN EN PROTECCIÓN CIVIL

PROCEDIMIENTO DE CONFIGURACIÓN DEL PLAN DE PROTECCIÓN CIVIL DE EUSKADI - LARRIALDIEI AURRE EGITEKO BIDEA (LABI) FRENTE A UNA EMERGENCIA DE SALUD PÚBLICA POR PANDEMIA

El 22 de junio de 2022, el Pleno de la Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente del procedimiento de configuración del Plan de Protección Civil de Euskadi (LABI) frente a una emergencia de salud pública por pandemia. Dicho procedimiento tiene por objetivo mejorar, desde la experiencia adquirida durante la crisis del COVID 19, la capacidad de respuesta interinstitucional en caso de producirse una nueva situación sanitaria de igual o parecida magnitud a la vivida.

La iniciativa se contextualizó y justificó teniendo en cuenta las competencias del Gobierno Vasco en Protección Civil y Salud Pública, exponiendo las características de una emergencia de este tipo y analizando el papel que tuvo el LABI en la emergencia por COVID-19 para, finalmente, presentar el contenido del procedimiento en base a la interpretación de los puntos concretos del citado Plan.

Prozedura hori, Euskadiko Babes Zibileko Planeko (LABI) Pandemiaren ondoriozko Osasun Publikoko Larrialdiei Aurre Egiteko Aholku Batzordean, azaroaren 7ko bileran aurkeztu zen.

Plan horren onarpenaren berri emateko Erabaki-proposamena egun batzuk geroago jakinarazi zen Gobernu Kontseiluan, azaroaren 22koan, hain zuzen.

ISTRIPU LARRIEN ARAUDIAREN MENPEKO ESTABLEZIMENDUAK (SEVESO)

Istripu larrien araudiari dagokionez, azaroaren 20an, Babes Zibileko Kontseilu Nazionaleko Batzorde Iraunkorrek aldeko txostena eman zien enpresa haue-tako Kanpoko Larrialdi Planei:

- ▶ DEKITRA, S.A.(Lantarón)
- ▶ GENERAL QUÍMICA, S.A.U (Lantarón)
- ▶ MAXAM OUTDOORS, SAU (Galdakao).
- ▶ ACEROS INOXIDABLES OLARRA, S.A. (Loiu)
- ▶ WEYLICHEM BILBAO SLU (Zierbena) (Lehengo INEOS SULPHUR

En este sentido, el procedimiento fue presentado ante el Consejo Asesor frente a Emergencias de Salud Pública por Pandemia del Plan de Protección Civil de Euskadi-LABI, reunido el 7 de noviembre.

La propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de su aprobación se informó unos días después en Consejo de Gobierno, concretamente el celebrado el 22 de noviembre.

ESTABLECIMIENTOS SOMETIDOS A LA REGLAMENTACIÓN DE ACCIDENTES GRAVES (SEVESO)

En cuanto a la normativa de accidentes graves, el 20 de octubre la Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil informó favorablemente los Planes de Emergencia Exterior de las siguientes empresas:

- ▶ DEKITRA, S.A. (Lantarón)
- ▶ GENERAL QUÍMICA, S.A.U (Lantarón)
- ▶ MAXAM OUTDOORS, SAU (Galdakao)
- ▶ ACEROS INOXIDABLES OLARRA, S.A. (Loiu)
- ▶ WEYLICHEM BILBAO SLU (Zierbena) (Antigua INEOS SULPHUR)



- ▶ CHEMICAL SPAIN, S.L.U.
- ▶ BAHIA BIZKAIA GAS, S.L.U. (Zierbena)
- ▶ ESERGUI (Zierbena)
- ▶ REPSOL BUTANO, S.A. (Santurtzi)

Halaber, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak, iaz egindako osoko bilkuren bi bileratan, aldeko txostena eman zien enpresa batzuen Kanpoko larrialdi Planen eguneraketei.

Ekainaren 22ko Babes Zibileko Batzordean hauei:

- ▶ BAKELITE IBERICA, S.A. (Lantarón)
- ▶ SOFIAM IBERICA, S.L. (Iruña Oka)
- ▶ GASES OXINORTE A.I.E. (Barakaldo)

Abenduaren 22ko Babes Zibileko Batzordean hauei:

- ▶ TUBACEX TUBOS INOXIDABLES S.A. (Amurrio)
- ▶ TUBACEX TUBOS INOXIDABLES S.A. (Laudio)
- ▶ EXOLUM CORPORATION, S.A. Rivabellosa (Ribera Baja/Erribera Beitia)
- ▶ EXOLUM CORPORATION, S.A. (Zierbena)
- ▶ ACIDEKA, S.A. (Zierbena)

Abenduaren 22ko Babes Zibileko Batzordean, hain zuzen, Bilboko Portuko jarduera berri baten Kanpoko Larrialdi Planaren aldeko txostena eman zen:

- ▶ REPSOL LNG HOLDIN S.A. Santurtzi, Zierbena eta Bilboko Portu Autonomoaren Eremuko Industria-Guneko 2 sektorea. Horri dagokionez, nabarmendu behar da Kanpoko Larrialdi Plan horretan "ESTACIÓN BUNKERING GNL" izena gehitu zela, hobeto identifikatzeko.

- ▶ CHEMICAL SPAIN, S.L.U.
- ▶ BAHIA BIZKAIA GAS, S.L.U. (Zierbana)
- ▶ ESERGUI, S.A. (Zierbana)
- ▶ REPSOL BUTANO, S.A. (Santurtzi)

Asimismo, la Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente las actualizaciones de los Planes de Emergencia Exterior de varias empresas en el transcurso de los plenos de las dos sesiones realizadas el pasado año.

En la Comisión de Protección Civil del 22 de junio:

- ▶ BAKELITE IBERICA, S.A. (Lantarón)
- ▶ SOFIAM IBERICA, S.L. (Iruña de Oca)
- ▶ GASES OXINORTE A.I.E. (Barakaldo)

En la Comisión de Protección Civil del 22 de diciembre:

- ▶ TUBACEX TUBOS INOXIDABLES, S.A. (Amurrio)
- ▶ TUBACEX TUBOS INOXIDABLES, S.A. (Laudio)
- ▶ EXOLUM CORPORATION, S.A. Rivabellosa (Ribera Baja/Erribera Beitia)
- ▶ EXOLUM CORPORATION, S.A. (Zierbena)
- ▶ ACIDEKA, S.A. (Zierbena)

Precisamente, en la Comisión de Protección Civil del 22 de diciembre se informó también favorablemente el Plan de Emergencia Exterior de una nueva actividad situada en el Puerto de Bilbao:

- ▶ REPSOL LNG HOLDIN S.A. Sector 2 del Área Industrial de la Zona de Santurtzi, Zierbena y Puerto de Bilbao (Zierbena). Cabe destacar a este respecto que en dicho Plan de Emergencia Exterior se añadió la denominación "ESTACIÓN BUNKERING GNL" para su mejor identificación.

UDAL LARRIALDI PLANAK

Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak, abenduaren 22ko bileran, Barakaldoko eta Zierbenako udal larrialdi planen eguneraketei ere aldeko txostena eman zien.

Horiek horrela, udal horiek, dagoeneko, kasuan-kasuan egon daitezkeen arriskuen eta dituzten baliabideen araberako jarduketa-prozedura eguneratuak dituzte, dokumentuetan jasota.

SUTEEN PREBENTZIO ETA ITZALKETAKO ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUEI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUA

Abenduaren 22an, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzko Lege-aurreproiektuaren aldeko txostena eman zuen.

Gaur egun, SPEIS zerbitzuak Larrialdiak Kudeatzeko Legearen V. Kapituluaren arabera arautzen dira eta, beste estamentu batzuek ez bezala, hauek ez dute lege propioirik. Hortaz, aurreproiektu horrekin lortu nahi dira, besteak beste, zerbitzu horiek lege propio baten arabera arautzea eta zerbitzuak homogeneizatzeko irizpide komunak izatea, baita erregimen propioaren homologazioa eta erregulazio espezifikoak. Hori guztia, SPEIS zerbitzuak dituzten erakundeen eskumen propioak eta autonomia baztertu gabe.

PLANES DE EMERGENCIAS MUNICIPALES

La Comisión de Protección Civil de Euskadi también informó favorablemente, en su sesión del 22 de diciembre, acerca de la actualización de los planes de emergencia municipales de Barakaldo y Zierbana.

De este modo, estos ayuntamientos ya disponen de aquellos documentos en los que figuran los procedimientos de actuación actualizados en relación a los posibles riesgos y a los recursos disponibles en cada caso.

ANTEPROYECTO DE LEY DE LOS SERVICIOS DE PREVENCIÓN Y EXTINCIÓN DE INCENDIOS Y SALVAMENTO

El 22 de diciembre, la Comisión de Protección Civil de Euskadi informó favorablemente el Anteproyecto de Ley de los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento.

En la actualidad, los SPEIS están regulados en el Capítulo V de la Ley de Gestión de Emergencias y, a diferencia de otros estamentos, carecen de una ley propia. Por tanto, con este anteproyecto se pretende lograr, entre otras cuestiones, que estos servicios se regulen a través de una ley propia y que posean criterios comunes para la homogeneización de los mismos, así como una homologación y regulación específica del régimen propio, todo ello desde el respeto a la autonomía y a las competencias de las distintas instituciones propias de los SPEIS.



BFA argazkia
Fotografía DFB/BFA

5.2 AUTOBABESA

Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzari atxikitako Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorren xedea da Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemak behar bezala funtziona dezan garrantzitsuak diren autobabes-planen buruzko datuak inskribatzea.

“Euskadiko Autobabes Planen Erregistroa” aplikazioa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa dago (<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>), administratuen eta administrazioaren arteko elkarreragina errazteko.

Halaber, 2022. urtean LAEMZek ekintza hauek egin zituen:

AUTOBABES PLANEN ERREGISTRO OROKORRA

Autobabeserako Euskal Arauari lotutako 1.282 establezimendutako larrialdiak kudeatzeko datu garrantzitsuak inskribatu edo eguneratu ziren.

AUTOBABESAREN ARLOKO TEKNIKARI ESKUDUNAK

Era berean, Euskadiko administrazioan 117 teknikari gehiago akreditatu ziren eta horiek Autobabeserako Euskal Arauari lotutako establezimenduetarako autobabes planak egingo dituzte.

5.3 LURRALDE ANTOLAMENDUA, HIRIGINTZA PLANIFIKAZIOA ETA INGURUMEN INPAKTUA

Larrialdiei buruzko araudiak ez ezik, araudi sektorial batzuek ere eskatu zuten larrialdien eta babes zibilaren arloko administrazio eskudunaren txostena, hainbat tramitazio egiteko, besteak beste, Lurralde Antolamenduari buruzko araudiak (lurralde planak eta plan sektorialak) eta Hirigintzari buruzkoak (udal planifikazioa, plan orokorrak eta plan bereziak).

5.2 AUTOPROTECCIÓN

El Registro General de Planes de Autoprotección de Euskadi, adscrito a la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología, tiene la finalidad de inscribir los datos de los Planes de Autoprotección relevantes para el correcto funcionamiento del Sistema Vasco de Atención de Emergencias.

La aplicación del “Registro de Planes de Autoprotección de Euskadi” se encuentra en sede electrónica del Gobierno (<https://www.euskadi.eus/sede-electronica/>) con el objetivo de facilitar la interacción de los administrados con la administración.

Durante el año 2022, la DAEM emprendió las siguientes acciones:

REGISTRO GENERAL DE PLANES DE AUTOPROTECCIÓN

Se inscribieron o actualizaron los datos relevantes para la gestión de emergencias de 1.282 establecimientos sujetos a la Norma Vasca de Autoprotección.

TÉCNICOS Y TÉCNICAS COMPETENTES EN MATERIA DE AUTOPROTECCIÓN

Igualmente se acreditaron ante la administración vasca 117 nuevos técnicos y técnicas que acometerán los planes de autoprotección de los establecimientos sujetos a la Norma Vasca de Autoprotección.

5.3 ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, PLANIFICACIÓN URBANÍSTICA E IMPACTO AMBIENTAL

Además de la normativa de emergencias, diversas normativas sectoriales exigieron recabar informe de la administración competente en emergencias y protección civil para las diversas tramitaciones, como es el caso de la normativa de Ordenación del Territorio (Planes Territoriales y Sectoriales) y la normativa Urbanística (de cara a la planificación municipal, Planes Generales y Especiales).

Txosten horiek LAEMZi eskatu zitzaizkion tramitazio-fase ezberdinetan eta azkenean Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordean aurkeztu ziren berrito txostena jasotzeko. Batzorde horren osoko bilkuraren bileran Zuzendaritza honek ere parte hartzen du. Ingurumen Ebaluazioari buruzko araudiak (planak, programak eta proiektuak) berariaz ezartzen du istripu larrietan eskuduna den administrazioaren txostena izatea nahitaezkoa dela; Ingurumen Administrazioari buruzko araudi autonomikoak ere hori berori ezartzen du.

Iaz, Lurralde Antolamenduko, Hirigintza Planifikazioko, Ingurumen Ebaluazioko eta Ingurumen Baimen Integratuko 115 espediente izapidetu ziren. Argi geratuta, beraz, jarduerak 2022an, aurreko urteen aldean, goranzko joera izan duela. Ez du ematen goranzko joera hori proiektu edo plan gehiago gauzatzearen ondorioa izan denik, baizik eta araudi sektorialak, administrazio eskudunen txostenak jasotzeko orduan ezartzen dituen betekizunei dagokienez, gero eta zorrotzagoa izatearen ondorioa.

Estos informes se solicitaron a la DAEM en distintas fases de su tramitación y fueron sometidos finalmente a un nuevo informe en la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (COTPV) en cuya sesión en Pleno participa esta Dirección. La normativa de Evaluación Ambiental (planes, programas y proyectos) también exige específicamente recabar informe preceptivo de la administración competente en relación a los accidentes graves, como también lo exige la legislación autonómica en Administración Ambiental.

En el transcurso del año pasado se tramitaron 115 expedientes de Ordenación del Territorio, Planificación Urbanística, Evaluación Ambiental y Autorización Ambiental Integrada. De este modo, se confirmó la tendencia al incremento en la actividad en 2022 respecto a los años anteriores. Esta circunstancia no parece obedecer al hecho de que se lleven a cabo más proyectos o planes, sino a que la normativa sectorial está siendo cada vez más exigente en cuanto los requisitos exigidos a la hora de recabar informes de las administraciones competentes.

ESPEDIENTE-MOTA / TIPO DE EXPEDIENTE	Espediente kopurua / Número de expedientes
Lurralde antolamendurako tresnak (LAG, LPP, LPS) Instrumentos de ordenación del territorio (DOT, PTP, PTS)	9
Hirigintza-planifikazioa Planificación urbanística	30
Planen ingurumen-ebaluazioa Evaluación ambiental de planes	18
Proiektuen ingurumen-ebaluazioa Evaluación ambiental de proyectos	41
IPPC	17
GUZTIRA / TOTAL	115

5.4 LURRALDE PLAN FORALAK:

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO LARRIALDIETAKO PLAN FORALA

Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen 2022ko ekainaren 22ko osoko bilkuran aldeko txostena eman zitzaion Bizkaiko Lurralde Historikoko Larrialdietako Plan Foralari.

Plan horren barruko atalak hauek dira: lege-esparrua eta helburuak, lurraldeari buruzko informazioa eta eragiten dioten arriskuak, plan foralaren egitura organikoa eta funtzionala, operatibitatea larrialdietan, maila handiagoko/txikiagoko beste plan batzuekiko integrazioa eta, azkenik, planaren ezarpena eta mantenimendua.

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO LARRIALDIETAKO PLAN FORALA

Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen 2022ko ekainaren 22ko osoko bilkuran aldeko txostena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietako Plan Foralari.

Plan horren barruko atalak hauek dira: helburua eta irismena, lurraldeari buruzko informazioa eta eragiten dioten arriskuak, plan foralaren egitura organikoa eta funtzionala, operatibitatea larrialdietan, maila handiagoko/txikiagoko beste plan batzuekiko integrazioa eta, azkenik, planaren ezarpena eta mantenimendua.

5.4 PLANES TERRITORIALES FORALES:

PLAN FORAL DE EMERGENCIAS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

En el pleno de la comisión de protección civil de Euskadi de 22 de junio de 2022 quedó informado favorable el Plan Foral de Emergencias del Territorio Histórico de Bizkaia.

El mismo lo conforman los siguientes apartados: marco legal y objetivos, información del territorio y riesgos que afectan, estructura orgánica y funcional del plan foral, operatividad en caso de emergencia, la integración con otros planes de ámbito inferior/superior y finalmente la implantación y mantenimiento del plan.

PLAN FORAL DE EMERGENCIAS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ARABA

En el pleno de la comisión de protección civil de Euskadi de 22 de junio quedó informado favorablemente el Plan Foral de Emergencias del Territorio Histórico de Araba.

Los apartados que lo forman son los siguientes: objeto y alcance, información del territorio y riesgos que afectan, estructura orgánica y funcional del plan foral, operatividad en caso de emergencia, integración con otros planes de ámbito inferior/superior y, finalmente, la implantación y mantenimiento del plan.

6. BATZORDEAK, HITZARMENAK ETA PROTOKOLOAK

Maiatzaren 30ean, Iñaki Inorizak, LAEMZko Planifikazio Arloko buruak, Senatuko Industria Batzordean parte hartu zuen. Han azaldu zuen Estatu osoan SEVESO zuzentaraua aplikatzeko eta garatzeko gakoak zein diren eta zehaztu zuen zein hobekuntza-alderdi ezarri behar diren, industria kimikotik eratorzen diren arriskuak gutxitzeko.

“Eusko Jaurlaritzako teknikari horrek, prebentzio-sistemetan aurrera egiteko puntu nagusi gisa, nabarmendu zituen lurralde antolamenduarekin, arriskuen analisi-rako ereduak aplikazioarekin eta herritarrei zuzendutako informazioarekin lotutako hainbat aldagai”.

Ildo horretatik, defendatu zuen jarraitu behar dela dagoen arriskua zehazteko balio duten simulazio matematikoko ereduak hobetzen eta ikertzen; sakondu behar dela lurralde antolamenduari buruzko araudian, establezimendu horien ingurua arautzeko; eta ahalegindu behar dela horrelako larrialdi planetan aurreikusten diren egoera larriek zuzenean eragin diezaieketen herritarrek parte hartze handiagoa izan dezatela.

6. COMISIONES, CONVENIOS Y PROTOCOLOS

El 30 de mayo, el responsable del Área de Planificación de la DAEM, Iñaki Inoriza, intervino en la Comisión de Industria del Senado donde expuso las claves de la aplicación y desarrollo de la directiva SEVESO en el conjunto del Estado estableciendo, al mismo tiempo, los aspectos de mejora que deben implementarse a fin de minimizar los riesgos derivados de la industria química.

“El técnico del Gobierno Vasco destacó, como principales puntos de avance en los sistemas de prevención, diversas variables relacionadas con la ordenación del territorio, la aplicación de los modelos de análisis de riesgos y la información dirigida a la población”.

En este sentido, apostó por continuar investigando y mejorando los modelos de simulación matemática con los que se determina el riesgo existente, profundizar en la normativa de ordenación del territorio para regular el entorno de estos establecimientos y procurar un mayor nivel de participación por parte del público directamente afectado por los escenarios más graves contemplados en este tipo de planes de emergencia.



Gaur egun, horrelako 418 enpresa daude Estatuan eta horietatik 31 Euskadin.

Horretaz aparte, LAEMZek beharrezkoak zituen onarpenak edo aldeko txostenak jaso zituen beste erakunde eta batzorde batzuetan.

Era berean, Ricardo Ituarte Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariak urriaren 24an Babes Zibileko Kontseilu Nazionalan parte hartu zuen, Madrilen. Batzorde horretan erakutsi zuen Eusko Jaurlaritza Ortzimuga 2035-Hondamendi Arriskua Murrizteko Plan berriaren garapenaren alde dagoela, beti ere eskumenen esparrua errespetatuta. Ituartek azaldu zuen Eusko Jaurlaritza plan berri hori idazteko Batzordean aktiboki parte hartzeko prest dagoela.

Plan horren helburua da indartzea, babes zibilaren ikuspegitik, Estatuko Administrazio Orokorreko organoen estrategia, operatibo zentralena eta erkidegoen eta hiri autonomoen operatiboena; horrelako kontingentziak aurreikusteko, ebaluatzeko, horiei aurre egiteko, eta horien ondoren bere onera itzultzeko gaitasuna optimizatzeko helburuarekin.

Topaketa horretan, Fernando Grande-Marlaska Barne ministroa buru zela, Estatu osoko babes zibileko arduradunek parte hartu zuten. LAEMZko zuzendariak hitz egin zuenean gogorarazi zuen Euskadik hamarkada batzuk daramatzala arlo hori lantzen, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren bidez.

Azaroaren 14an, Babes Zibileko Boluntariotzako Aholku Batzordea Bilbon elkartu zen, Rodrigo Gartzia Seguritasuneko sailburuordea buru zela, eta batzorde horrek modu positiboan baloratu zuen martxoaren 12an egindako **Euskadiko Udal-mailako Babes Zibileko Talde eta Elkarteen Arduradunen II. Topaketa**. Ekimen hori berriz ere egingo da eta Euskadiko boluntarioek larrialdien eta babes zibilaren arloko beren proiektu eta proposamen propioak aurkezteko balioko du.

Horrez gain, batzorde horrek aitortu zuen boluntarioen kolektiboak lan handia egin zuela Euskadin izandako baso-suteen itzalketan, batez ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatutakoetan.

Abenduaren 12an Sarien Batzordea elkartu zen, Larrialdietako eta Babes Zibileko Merezimenduaren dominak eta plaka-diplomak zein pertsonarentzat eta zein entitaterentzat izango ziren zehazteko.

En la actualidad existen 418 empresas de estas características en el conjunto del Estado, 31 de las cuales se encuentran radicadas en Euskadi.

En otro orden de cosas, la DAEM obtuvo la aprobación, o los informes favorables pertinentes, ante diversas instituciones y comisiones.

Asimismo, el Director de Atención de Emergencias y Meteorología, Ricardo Ituarte, participó el 24 de octubre en el Consejo Nacional de Protección Civil celebrado en Madrid donde mostró el apoyo del Gobierno Vasco al desarrollo del nuevo Plan de Reducción del Riesgo de Desastres Horizonte 2035, siempre desde el respeto al marco competencial. Ituarte mostró, al mismo tiempo, la disposición del ejecutivo vasco a participar de forma activa en la Comisión Redactora del mismo.

El citado Plan pretende fortalecer, desde el punto de vista de la protección civil, la estrategia de los órganos de la Administración General del Estado, de los operativos centrales y de los pertenecientes a las comunidades y ciudades autónomas a fin de optimizar la capacidad de anticipación, respuesta, evaluación y recuperación ante este tipo de contingencias.

En el encuentro, presidido por el Ministro del Interior, Fernando Grande-Marlaska, participaron responsables de protección civil de todo el Estado. Durante su intervención, el Director de la DAEM recordó que Euskadi lleva décadas trabajando en esta materia a través del Sistema Vasco de Atención de Emergencias.

El 14 de noviembre, el Comité Asesor del Voluntariado Vasco de Protección Civil, reunido en Bilbao bajo la presidencia del Viceconsejero de Seguridad, Rodrigo Gartzia, valoró positivamente el **II Encuentro de Responsables de Agrupaciones y Asociaciones de Protección Civil Municipal de Euskadi** celebrado el 12 de marzo, iniciativa que volverá a repetirse en adelante y que servirá para que el voluntariado vasco presente sus propios proyectos y propuestas en el ámbito de las emergencias y la protección civil.

Además, este órgano reconoció la labor desarrollada por este colectivo en las tareas de extinción de los incendios forestales declarados en Euskadi, fundamentalmente en los ocurridos en el territorio histórico de Bizkaia.

El 12 de diciembre tuvo lugar la Comisión de Distinciones en la que se determinaron las personas y entidades acreedoras a las Medallas y Placas-Diplomas al Mérito en Emergencias y Protección Civil.



Zazpi egun geroago, abenduaren 19an, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Batzordeak nabarmendu zuen zein garrantzizkoa den Euskalmeteko abisuen sistema, Euskadiko larrialdiak prebenitzeko eta kudeatzeko funtsezko tresna baita.

Azkenik, egun horretan bertan SPEIS batzordea elkar-tu zen eta horretan suhiltzaileei buruzko lege-aurreproiektua aztertu zen.

Batzorde horietan ez ezik, LAEMZek beste batzorde eta kontseilu hauetan ere parte hartzen du: Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren Koordinazio- eta Jarraipen-Batzordea, Garoñako Zentral Nuklearra Desegituko Prozesuaren Jarraipenerako Erakundearen arteko Batzordea, Babes Zibileko Kontseilu Nazionalaren Batzorde Iraunkorra, Bide Segurtasuneko Batzordea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Batzordea, Babes Zibileko Kontseilu Nazionala, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Kontseilua, Uraren Kontseilua eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Kontseilua.

Horretaz gain, LAEMZ iaz Araubide Juridikoaren Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu zen zenbait erakunde eta organismorekin 15 hitzarmen sinatzeko, besteak beste hauekin: Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Vitoria-Gasteizko Udala, Euskal Mendizale Federazioa, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, Euskal Espelelogoen Elkarte, Enpresa Kimikoen Euskal Elkarte (AVEQ-KIMIKA), AZTI itsas ingurunean eta elikaduran espezializatuta dagoen zentro teknologikoa, Euskal DYA eta Gurutze Gorria.

Azkenik, Santurtziko, Muskizko, Hernaniko eta Lantarongo udalekin sinatutako hitzarmenak ere azpimarratu behar dira, larrialdi kimikoa dagoenean herri-tarrei abisatzeko sistemak instalatzearekin lotutako lankidetzak-esparrua ezarri eta arautzeko.

Siete días más tarde, el 19 de diciembre, el Consejo de Seguridad Pública de Euskadi puso en valor la importancia del sistema de avisos de Euskalmet como herramienta fundamental para prevenir y gestionar las emergencias en Euskadi.

Por último, en esa misma jornada tuvo lugar la Comisión SPEIS en la que se analizó el anteproyecto de la Ley de Bomberos.

Al margen de todo lo expuesto, la DAEM también participa en las siguientes comisiones y consejos: Comisión de Coordinación y Seguimiento de la Estrategia de Prevención del Suicidio, Comisión Interinstitucional para el Seguimiento del Proceso de Desmantelamiento de la Central Nuclear de Garoña, Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil, Comisión de Seguridad Vial, Consejo de Seguridad Pública de Euskadi, Consejo Nacional de Protección Civil, Consejo Rector de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, Consejo del Agua y Consejo de Espectáculos y Actividades Recreativas.

Cabe destacar igualmente que la DAEM colaboró el año pasado con la Dirección de Régimen Jurídico en la suscripción de diversos convenios con diferentes entidades y organismos, entre los que destacaron los relativos a las diputaciones de Araba y Bizkaia, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, la Federación Vasca de Montaña, el Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi, la Asociación Euskal Espelelogoen Elkarkoa-Unión de Espeleólogos Vascos, la Asociación Vasca de Empresas Químicas (AVEQ-KIMIKA), el centro tecnológico especializado en ciencia marina y alimentaria, AZTI, Euskal DYA y Cruz Roja.

A todos ellos hay que añadir los convenios suscritos con los ayuntamientos de Santurtzi, Muskiz, Hernani y Lantarón dirigidos a establecer y regular el marco de colaboración relativo a la instalación de un sistema de avisos a la población en situaciones de emergencia química.



7. SIMULAKROAK ETA JARDUKETAK

2022an, LAEMZek hainbat simulakrotan parte hartu zuen, besteak beste, EAEko larrialdi kimikoetarako sirenen sarea aktibatzeneko ohiko jarduketetan, AVEQ-KIMIKA Euskadiko Enpresa Kimikoen Elkartearekin lankidetzan.

Jarduketa horietaz aparte, Zuzendaritza honek, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, ekainaren 24an baso-sute baten simulakro batean parte hartu zuen Betolazan, Arrazua-Ubarrundia Udalerrian. Simulakro horretan baliabide hauek guztiak koordinatu ziren: Arabako eta Vitoria-Gasteizko suhiltzaileak, Mendiko Zerbitzu Forala, Ertzaintza eta Agoncillotik (Errioxa) etorritako aire-baliabideak.

Otsailaren 8an eta 9an LAEMZek Gijongo "Jovellanos" Itsas Segurtasun Integraleko Zentroan mahai-simulakro batean parte hartu zuen. Bilboko Itsas Kapitaintzak zuzendutako mahai horretan asmatutako kasu hau landu zen: Bilboko Portutik lau miliara su hartutako ferry baten barrutik 450 pertsonatik gora erreskatatzea eta ebakuatzea.

Mass Rescue Operation (MRO) izena eman zitzaion simulakro horren helburua zen aztertzea horrelako itsas larrialdietan inplikaturako erakunde desberdinen arteko koordinazioa eta eraginkortasuna.

7. SIMULACROS Y EJERCICIOS

En el transcurso de 2022, la DAEM participó en distintos simulacros, entre ellos, los habituales ejercicios de activación de la red de sirenas de emergencia química de la CAV en colaboración con AVEQ-KIMIKA, Asociación Vasca de Empresas Químicas.

Al margen de dichos ejercicios, esta Dirección, en colaboración con la Diputación Foral de Álava, participó el 24 de junio a un simulacro de incendio forestal en Betolaza, municipio de Arrazua-Ubarrundia. En el mismo se coordinaron recursos de los bomberos de Araba y Vitoria-Gasteiz, Servicio Foral de Montes, Ertzaintza y medios aéreos procedentes de Agoncillo (La Rioja).

Durante los días 8 y 9 de febrero, la DAEM participó en el Centro de Seguridad Marítima Integral "Jovellanos" de Gijón en un simulacro de mesa dirigido por la Capitanía Marítima de Bilbao en el que se abordó el supuesto del rescate y evacuación de más de 450 personas a bordo de un ferry incendiado a cuatro millas del Puerto de Bilbao.

El objetivo del ejercicio, denominado **Mass Rescue Operation** (MRO), fue testar la coordinación y eficacia de los diferentes organismos implicados en este tipo de emergencias marítimas.

Simulakroan zehar, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) eta IMV taktika (Biktima Ugariko Intzidentea) aktibatu zituen; eta biktimen senideei arreta emateko telefono zenbaki espezifiko bat prestatu zuen.

Uztailaren 6an, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak beren baliabideen koordinazioa aztertu zuten, Plentziako eta Gorlizko hareatzetan egindako simulakro batean.

Horretan, bi pertsona erreskatatu behar izan zituzten eta gero lurrera heldu zen isuri kutsatzaile bat kontrolatu behar izan zuten.

Horretaz gain, irailaren 28an, Euskadiko larrialdietako ekipoek, LAEMZek koordinatuta, Bilboko aireportuan aire-istripu baten simulakroan parte hartu zuten.

En el transcurso del mismo, el Gobierno Vasco activó el Plan de Protección Civil de Euskadi (LABI) y la táctica IMV (Incidente de Múltiples Víctimas), habilitando para ello un número de teléfono específico de atención a los familiares de las víctimas.

El 6 de julio, EL Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia testaron la coordinación de sus respectivos recursos en el transcurso de un simulacro que tuvo lugar en los arenales de las localidades de Plentzia y Gorliz.

El ejercicio consistió en el rescate de dos personas y en el posterior control de un vertido contaminante llegado a tierra.

Asimismo, el 28 de septiembre, los equipos de emergencias de Euskadi, coordinados por la DAEM, participaron en un simulacro de accidente aéreo en el



Aenak antolatu zuen jarduketa horretarako kasu hau erabili zen: abioneta batek istripua izan zuen aireportuaren hegoaldeko plataforman; eta horren helburuak bi ziren: organismo horren larrialdi-planean aurreikusitako jarduketa- eta koordinazio-prozedurak ebaluatzea, eta horrelako larrialdiei aurre egiteko inplikatzaren diren baliabideen ezagutza- eta integrazio-maila aztertzea.

Urriaren 15a eta 16a bitartean, Euskal Espeleo Laguntza eta Nafarroako Euskal Espeleo Laguntza erakundeek Aralar mendiaren Nafarroa aldean erreskate-simulakro bat antolatu zuten, eta horretan 75 espeleologia-aditu inguruk parte hartu zuten. Jarduketa horri esker, Euskadiko eta Nafarroako gobernuek sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren garrantzia agerian geratu zen. Hitzarmen horrek jarduera-arlo ugari hartzen ditu barne, besteak beste, larrialdiak eta babes zibila.

Simulakroa Larretxiki II eta Hormazarreta II zuloetan egin zen eta horretan Estatuko beste erkidego batzuetako adituek, GRTk (Nafarroako Suhiltzaileen Erreskate Teknikoko Taldea), Ertzaintzako Zaintza eta Erreskate Unitateko espezialistek eta Nafarroako Gurutze Gorriko baliabideek parte hartu zuten.

aeropuerto de Bilbao. El ejercicio, organizado por Aena y centrado en el supuesto de un accidente sufrido por una avioneta en la plataforma sur del aeropuerto, tuvo un doble objetivo: evaluar los procedimientos de actuación y coordinación previstos en el plan de emergencias de este organismo y comprobar el grado de conocimiento e integración de los diferentes recursos implicados en la atención de una emergencia de estas características.

Entre los días 15 y 16 de octubre, los organismos Euskal Espeleo Laguntza y Nafarroako Espeleo Laguntza organizaron un simulacro de rescate en la zona navarra de la Sierra de Aralar en el que participaron alrededor de 75 especialistas en espeleología. El ejercicio contribuyó a poner en valor la importancia del convenio de colaboración suscrito por los gobiernos de Euskadi y Navarra en diferentes ámbitos de actuación, entre ellos el relativo a las emergencias y la protección civil.

La iniciativa tuvo lugar en las cavidades de Larretxiki II y Hormazarreta II, y en la misma participaron personas expertas procedentes de otras comunidades del Estado, GRT (Grupo Rescate del Servicio Técnico de Bomberos de Navarra), especialistas de la Unidad de Vigilancia y Rescate de la Ertzaintza y recursos de la Cruz Roja de Navarra.





8. ZABALKUNDEA

Zabalkunde etengabeak gizartearen autobabes mailak handitzen laguntzen du. Euskadiko herritarrengana berme handienarekin heltzeko helburuarekin, Zuzendaritza honek komunikazio-tresna hauek erabiltzen ditu:

LAEMZek bi Twitter-kontu aktibo ditu: @112_SOS-Deiak eta @Euskalmet. Bi horiek 2022an datu hauek lortu zituzten:

8. DIVULGACIÓN

La divulgación continua contribuye a incrementar los niveles de autoprotección de la sociedad. A fin de llegar a la población vasca con las máximas garantías, esta Dirección dispone de diversas herramientas comunicativas:

La DAEM mantiene activas dos cuentas en Twitter @112_SOSDeiak y @Euskalmet. Los datos obtenidos por ambas en el 2022 fueron los siguientes:



**2022AN LORTUTAKO
DATUAK**

**DATOS OBTENIDOS
EN 2022**

@112_SOSDeiak

Jarritako txioak: Tweets emitidos:

1.767

Jarraitzaile kopurua: Nº de seguidores:

40.008

Web-orriaren bisitak Visitas a la página web:

101.036

APP-aren deskargak: Descargas APP:

72.430

**2022AN LORTUTAKO
DATUAK**

**DATOS OBTENIDOS
EN 2022**

@Euskalmet

Jarritako txioak: Tweets emitidos:

6.228

Jarraitzaile kopurua: Nº de seguidores:

123.669

Web-orriaren bisitak Visitas a la página web:

9.219.950

APP-aren deskargak: Descargas APP:

15.782



Larrialdien munduan funtsezkoa izaten da betiko komunikabideekin (prentsa, irratia eta telebista) harreman ona eta erregularra izatea. 2022an erregistro hauek lortu ziren:

- ▶ **Elkarrizketak prentsan: 102**
- ▶ **Elkarrizketak irratian: 146**
- ▶ **Elkarrizketak telebistan: 99**
- ▶ **Prentsa-oharrak: 71**

Horrez gain, LAEMZek, Euskalmeten bitartez, urte osoan zehar (asteburuetan ere bai) eguraldiaren iragarpena modu pertsonalizatuan eskaini zien, goizeko eta arratsaldeko ordutegian, EAEko irratia ugariri, besteak beste, hauei:

- ▶ **Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, Radio Rioja Alavesa, Radio Nervi3n, Radio Gorbea, Cadena COPE, Cadena SER, Cadena Dial, Onda Cero, Arrasate Irratia, Oñati Irratia, eta Uribe FM.**

Zabalpenaren arloan, Euskal Meteorologia Agentziak 2022an lankidetzat finko hauek izan zituen:

- ▶ **Radio Euskadi: "La Mecánica del caracol" programa.**
- ▶ **Euskadi Irratia: "Norteko Ferrokarrila" programa.**

Era berean, Euskalmetek programa berezi batzuetan parte hartu zuen, esaterako, Euskadin aldaketa klimatikoaren ondoriozko eraginekin lotuta urak daukan papera aztertzen duen ETB2ko *El Cambio* programan eta telebista autonomikoaren gune zientifikoa den Teknopolis programan.

En el mundo de las emergencias es fundamental mantener con los medios de comunicación tradicionales (prensa, radio y televisión) una relación fluida y regular. Así, en 2022 se obtuvieron los siguientes registros:

- ▶ **Entrevistas en prensa: 102**
- ▶ **Entrevistas en radio: 146**
- ▶ **Entrevistas en televisión: 99**
- ▶ **Notas de prensa: 71**

Además, la DAEM, a través de Euskalmet, ofreció durante todo el año (incluidos los fines de semana) el pronóstico del tiempo de forma personalizada, en horarios de mañana y tarde, a diversas emisoras de radio de la CAV entre las que destacaron:

- ▶ **Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, Radio Rioja Alavesa, Radio Nervi3n, Radio Gorbea, Cadena COPE, Cadena SER, Cadena Dial, Onda Cero Bizkaia, Onda Cero San Sebastián, Arrasate Irratia, Oñati Irratia, y Uribe FM, entre otras.**

Dentro del apartado divulgativo, la Agencia Vasca de Meteorología mantuvo en el 2022 las siguientes colaboraciones fijas:

- ▶ **Radio Euskadi: Programa "La Mecánica del caracol".**
- ▶ **Euskadi Irratia: Programa "Norteko Ferrokarrila".**

Igualmente, Euskalmet participó en diversos programas especiales tales como *El Cambio* en ETB2, enfocado a analizar el papel que juega el agua en relación a los efectos provocados por el cambio climático en Euskadi, y el espacio científico de la televisión autonómica Teknopolis.

9. PRESTAKUNTZARAKO LANKIDETZA

LAEMZek urtean zehar Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin (PLEA) batera lan egiten du larrialdi-zerbitzuen prestakuntzaren arloan.

Hori dela eta, iaz, 2.853 pertsona (%42 emakumeak eta %58 gizonak) egon ziren, gehienak Babes Zibileko eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemako profesionalak eta boluntarioak, Zuzendaritza honek emandako 42 prestakuntza- eta zabalkunde-ekintzetakoren batean.

Halaber, LAEMZek, AVIFES Senideen eta Gaixotasun Mentalaren Bizkaiko Elkarteak gonbidatuta, "Depresioa: beste urrats bat aurrera egiteko: hitz egin dezagun" jardunaldian parte hartu zuen. Martxoaren lehen izan zen Deustuko Unibertsitatean, eta horretan argi ikusi ahal izan zen Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemak (LAEES) arlo hauetan egiten duen lana: prebentzioan, bere buruaz beste egiteko arriskua duten pertsonentzako arretan eta horien pertsona maiteei zuzendutako posbentzioan.

LAEMZek maiatzean Bizkaia Kalean jardunaldian ere parte hartu zuen, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialak gonbidatuta. Jardunaldia herritar guztientzat zabalik zegoen, haren helburua baitzen Zuzendaritza honek, LAEESko profesional eta boluntarioekin koordinatuta, larrialdi kolektibo eta indibidualetan ematen arreta psikosozialaren berri ematea.

Urrian, Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak gonbidatuta, LAEMZek Gizarte Langintzako XV. Jardunaldian parte hartu zuen, "Suizidioa. Gizarte Langintzatik gogoetak" izenekoan, hain zuen. Vitoria-Gasteizko EHUko Ingeniaritza Eskolan izan zen eta horretan erakutsi ziren 112 telefonoan jokabide suizidekin lotuta jasotako datuak.

Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemako profesionalak eta boluntarioek egindako lanaren berri ere eman zen, jokabide suiziden prebentzioari, arretari eta posbentzioari dagokienez.

9. COLABORACIÓN EN FORMACIÓN

La DAEM colabora con la Academia Vasca de Policía y Emergencias (AVPE) en la formación de los distintos servicios de emergencias a lo largo de todo el año.

Así, a lo largo del año pasado 2.853 personas (42% mujeres y 58% hombres), en su mayor parte profesionales y voluntariado del Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil, asistieron a alguna de las 42 actividades de formación y difusión impartidas por esta Dirección.

Asimismo, la DAEM participó, invitada por AVIFES, Asociación Vizcaína de Familias y Personas con Enfermedad Mental, en la jornada "Depresión: un paso más para avanzar: hablemos" que se celebró el 1 de marzo en la Universidad de Deusto en la que se pudo visibilizar el trabajo desarrollado por el Sistema Vasco de Atención de Emergencias (SVAE) en materia de prevención, atención a personas en riesgo suicida y en la postvención a sus seres queridos.

Además, la DAEM participó en mayo en la jornada Bizkaia Kalean, invitada por el Colegio Oficial de Psicología de Bizkaia y dirigida a la ciudadanía en general, al objeto de difundir la Atención Psicosocial en Emergencias Colectivas e Individuales que realiza esta Dirección, siempre en coordinación con los profesionales y el voluntariado del SVAE.

En octubre, invitada por el Colegio Oficial de Trabajo Social de Álava, la DAEM participó en la XV edición de la jornada Reflexiones aplicadas desde el Trabajo Social y Suicidio celebrada en la Escuela de Ingeniería de la UPV/EHU en Vitoria-Gasteiz, en la que se visibilizaron los datos recogidos a través del teléfono 112 en relación a las conductas suicidas.

Al mismo tiempo, se difundió el trabajo llevado a cabo por los profesionales y el voluntariado del Sistema Vasco de Atención de Emergencias en lo que se refiere a la prevención, atención y postvención de la conducta suicida.

Urteko azken hiruhilekoan, LAEMZek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari lagundu zion presuntakuntza ekintza bat garatzen, Euskal Autonomia Erkidegoko suhiltzaileei eta polizia zuzendutako hiru jardunalditan parte hartu baitzuen. Jardunaldi horien izena **“jokabide suizidaren prebentzioa, eta horretan esku-hartzea”** izan zen eta 400 profesional bertaratu ziren (%60 polizia eta %40 SPEIS). Jardunaldi horiek Ertzaintzako, Bizkaiko SPEISetako eta PLEAko Psikologia eta Soziologia Arloko adituek eman zituzten.

Azkenik, Euskal Mendizale Federazioak, LAEMZen laguntzarekin, berrogeita hamar hitzaldi inguru eman zizkien 14 ikastolatako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako institututako eta unibertsitateko mila ikasle ingururi.

Prebentzioa eta autobabesa mendian izan zen presuntakuntzaren gai nagusia, ikasleek zuzenean jakin dezaten zein arrisku izan ditzakeen natura-inguruneak; horri esker, gerta litezkeen istripuak saihesteko.

Durante el último trimestre del año, la DAEM colaboró con la Academia Vasca de Policía y Emergencias en el desarrollo de la actividad formativa, participando en tres jornadas dirigidas a bomberos y bomberas y policías del País Vasco celebradas bajo el nombre de **Prevención e Intervención en Conductas Suicidas** y a las que asistieron alrededor de 400 profesionales (60% policías y 40% SPEIS). Las jornadas fueron impartidas por expertos y expertas de Ertzaintza, SPEIS de Bizkaia y Sección de Psicología y Sociología de la AVPE y personal técnico de la DAEM.

Por último, la Federación Vasca de Montaña, con el apoyo de la DAEM, impartió cerca de medio centenar de charlas a más de un millar de alumnos y alumnas de 14 ikastolas, institutos de enseñanza secundaria obligatoria y aulas universitarias de Euskadi.

La temática formativa se centró en la prevención y autoprotección en montaña con el objetivo de que el alumnado conozca de primera mano los riesgos que entraña el medio natural, evitando de este modo posibles accidentes.





10. EKITALDI INSTITUZIONALAK

10.1 LARRIALDIETAKO MEREZIMENDUAREN DOMINAK EMATEA

2022ko otsailaren 12an, Eusko Jaurlaritzak merezimenduak aitortu zizkien aurreko urtean babes zibilarren arloan merezimenduzko egintzak edo gizarte lan solidarioa burutu zituzten pertsona eta erakundeei.

Egun horretan, Eusko Jaurlaritzak Larrialdien eta Babes Zibilaren Arloko merezimenduaren 11 domina banatu zituen (2 bereizgarri gorridunak eta 9 bereizgarri berdedunak), plaka-diploma bat Galdakao Boluntarioen Gizarte Elkarteari, 20 akreditazio-diploma zerbitzua ematen 10 eta 25 urte bete zituzten babes zibileko boluntarioei, eta beste diploma bat Zarauzko Babes Zibilari, bere 25. urteurrenagarentik.

10. ACTOS INSTITUCIONALES

10.1 CONCESIÓN DE MEDALLAS AL MÉRITO EN EMERGENCIAS

El 12 de febrero del 2022, el Gobierno Vasco otorgó los reconocimientos a las personas y organismos que durante el año anterior realizaron actos meritorios en el ámbito de la protección civil o llevaron a cabo una labor social solidaria.

En esta ocasión, el Gobierno Vasco otorgó 11 medallas al Mérito en Emergencias y Protección Civil (2 con distintivo rojo y 9 con distintivo verde), una placa-diploma destinada a la Asociación Galdakao Boluntarioen Gizarte Elkarte, 20 diplomas acreditativos a aquellas voluntarias y voluntarios de protección civil que cumplieron 10 y 25 años de servicio y uno más a Protección Civil de Zarautz con motivo de su 25 aniversario.



2 BEREIZGARRI GORRIDUN DOMINA

- ▶ Mouhammad Diouf: 2021eko ekainaren 20an, Mouhammad Diouf senegaldarra Nerbioi itsasadarreko uretara bota zen 72 urteko gizon bat erreskatatzeko. Gizona zorabiatu zen Bizkaiko hiriburuko Mesedeetako Zubitik hurbil.
- ▶ Iñaki Agirre: 2021eko urtarrilaren 10ean, Iñaki Agirrek itsasora jausitako parapentelari bat erreskatatu zuen. Istripuz jausi zen Orioko Antilla hondartzan eta Iñaki Agirre surf egiteko eremuan zebilen. Erreskate zaila izan zen emakumeak oina harrapatuta zituelako, parapenteko sokek beraiek lotuta.

9 BEREIZGARRI BERDEDUN DOMINA

- ▶ Joseba Mirene Elorrieta: 2021eko urtarrilaren 2an, Joseba Mirene Elorrieta Mendiola, Gorbeiaiko Arraba aterpeko zaindaria, 112an alerta eman ondoren, bi pertsonaren bila irten zen, eguraldi txarraren ondorioz desorientatuta baitzebiltzan. Gainera, 2021eko urtarrilaren 4an eta 5ean, egun horietan ere eguraldia txarra baitzen, 112an abisatu zuen lau gazte ezin zirela beren kabuz jaitsi. Zaindaria gazteak aterpean hartu zituen bi gauetz.
- ▶ Borja Villarejo: 2021eko martxoaren 27an, Borja Villarejo Fernándezek Ibarrangeluko Laida hondartzan 5 urteko adingabe bat suspertu zuen;

2 MEDALLAS CON DISTINTIVO ROJO

- ▶ Mouhammad Diouf: El 20 de junio del 2021, Mouhammad Diouf, de nacionalidad senegalesa, se lanzó a las aguas de la Ría del Nervión al rescate de un varón de 72 años edad que había sufrido un desvanecimiento a la altura del puente de la Merced de la capital vizcaína.
- ▶ Iñaki Agirre: El 10 de enero del 2021, Iñaki Agirre rescató a una parapentista que había caído al mar de forma accidental en la playa de Antilla en Orio. Iñaki Agirre había acudido a la zona a practicar surf. El rescate fue dificultoso ya que la mujer tenía los pies atados por las cuerdas del propio parapente.

9 MEDALLAS CON DISTINTIVO VERDE

- ▶ Joseba Mirene Elorrieta: El día 2 de enero del 2021, Joseba Mirene Elorrieta Mendiola, guarda del refugio Arraba del Gorbea, salió en busca de dos personas que se hallaban desorientadas a causa de las malas condiciones meteorológicas, tras dar la alerta al 112. Además, los días 4 y 5 de enero del 2021, también en situación de meteorología adversa, avisó al 112 informando de que cuatro jóvenes no podían descender por sus propios medios. El guarda cobijó a los jóvenes en el refugio durante dos noches.
- ▶ Borja Villarejo: El día 27 de marzo del 2021, Borja Villarejo Fernández reanimó en la playa de Laida/Ibarrangelu a una menor de 5 años de

izan ere, korronteak eraman zuen eta konorte gabe zegoen, bihotz-biriketako geldialdian.

- ▶ Vanesa Hernández: 2021eko apirilaren 12an, gizon heldu batek bihotz geldialdi bat izan zuen Irunen, bide publikoan. Vanesa Hernández Elvira lanbidez erizaina da eta gizonari BBBa egin zion eta bide bat jarri zion osasun zerbitzuak heldu aurretik, bertaratutako Ertzain-Etxeko agenteen aurrean.
- ▶ Ye Traore: 2021eko maiatzaren 17an, emakume bat Vitoria-Gasteizko bere etxean erditu zen. Haren alabetako bat, Ye Traore, 10 urtekoa, 112aren bidez Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroekin harremanetan jarri zen laguntza eskatzeko. Adingabeak operadore telefonikoak eskatutako datu guztiak eman zituen zehaztasun handiz.
- ▶ Ana Justa Román: 2021eko uztailaren 31n, suhiltzaileek, Sestaoko Udaltzaingoak eskatuta, 91 urteko adineko bat erreskatatu zuten, etxe barruan jausi baitzen. Esku-hartzen hori egin zen Ana Justa Román García-ren lan solidarioari esker; izan ere, Ana Justa Román pandemian hasi zen egunero erreskatatutako adinekoaren egoeraz arduratzen, nahi zuelako, eta haren senidea edo laguna izan gabe.
- ▶ Richard Maikel Ortega: irailaren 4an, Richard Maikel Ortegak lagundu zuen emakume baten bizitza salbatzen, emakumeak Bilbao-Bermeo norabidean doan Miraflores zubitik jauzi egin nahi zuelako. Richard Maikel Ortegak larrialdietako zerbitzuei abisatu zien eta une oro emakumearen ondoan egon zen, harekin hizketan eta hura lasaitzen; eta azkenean emakumearen bizitza salbatzea lortu zuen.
- ▶ Jesús Etxebarria: 2020ko irailaren 17an, Donostiako bide publikoan gizon bat zorabiatu zen bihotz-biriketako geldialdi baten ondorioz. Jesús Etxebarria une horretan hortik paseoa zebilen eta biktimari lehen laguntzak eman zizkion, osasun-zerbitzuak lekura heldu aurretik.

edad que se encontraba inconsciente, en parada cardiorrespiratoria, tras ser arrastrada por la corriente.

- ▶ Vanesa Hernández: El 12 de abril del 2021, un varón de mediana edad sufrió una parada cardíaca en plena vía pública de Irun. Vanesa Hernández Elvira, enfermera de profesión, le realizó una RCP e incluso le colocó una vía antes de que llegaran los servicios sanitarios y en presencia de agentes de la Ertzain-Etxea desplazados al lugar.
- ▶ Ye Traore: El 17 de mayo del 2021, una mujer dio a luz en el domicilio familiar de Vitoria-Gasteiz. Una de sus hijas, Ye Traore, de 10 años de edad, se puso en contacto con el Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi, a través del teléfono 112, a fin de solicitar ayuda. La menor ofreció todos los datos requeridos por la operadora telefónica con gran precisión.
- ▶ Ana Justa Román: El día 31 de julio del 2021, recursos de bomberos rescataron a instancias de la policía local de Sestao a una anciana de 91 años que había sufrido una caída en el interior de su domicilio. La intervención pudo llevarse a cabo gracias a la labor solidaria llevada a cabo por Ana Justa Román García quien a título personal se interesó diariamente por dicha anciana desde el inicio de la pandemia, sin ser familiar de esta y ni siquiera mantener relaciones de amistad.
- ▶ Richard Maikel Ortega: El 4 de septiembre, Richard Maikel Ortega contribuyó a salvar la vida de una mujer que pretendía precipitarse al vacío desde el puente de Miraflores, dirección Bilbao-Bermeo. Richard Maikel Ortega avisó a los recursos de emergencias y acompañó a la mujer en todo momento, dialogando con ella y tranquilizándola, logrando de este modo salvar su vida.
- ▶ Jesús Etxebarria: El 17 de septiembre del 2020, un varón se desvaneció en plena vía pública en Donostia como consecuencia de una parada cardiorrespiratoria. Jesús Etxebarria, quien en ese momento paseaba por el lugar, prestó a la víctima los primeros auxilios antes de que llegaran al lugar los servicios sanitarios.

- ▶ **Ibai Rengel:** 2020eko urriaren 1ean, Ibai Rengelen eraginkortasun handiz jardun zuen, pertsona baten harrapaketa gertatu eta berehala, pertsona horri laguntzeko orduan. Harrapaketa N-634an gertatu zen, Getariako San Prudentzio bidegurutzean, eta horren ondorioz harrapatutakoak bere gorputz-adarretako bat galduta zeukan.
- ▶ **Maialen Villanueva:** 2021eko urriaren 13an, 77 urteko gizon batek bihotz-biriketako geldialdi bat izan zuen Gipuzkoako Pasaia bide publikoan. Maialen Villanueva Llanos, Osasun Larrialdietako teknikaria, kasualitatez eremu horretan zegoen eta une horretan bizi-konstanterik ez zeukan biktima suspertzea lortu zuen.

- ▶ **Ibai Rengel:** El día 1 de octubre del 2020, Ibai Rengel actuó de forma determinante en las labores de asistencia a una persona que acababa de sufrir un atropello en la N-634, en el cruce de San Prudencio de Getaria, y que, como consecuencia del mismo, había perdido uno de sus miembros.
- ▶ **Maialen Villanueva:** El 13 de octubre del 2021, un varón de 77 años sufrió una parada cardiorespiratoria en plena vía pública del municipio guipuzcoano de Pasaia. Maialen Villanueva Llanos, Técnica de Emergencias Sanitarias que se encontraba casualmente en la zona, consiguió reanimar a la víctima que en ese momento no tenía constantes vitales.

1 PLAKA-DIPLOMA

- ▶ **Galdakao Boluntarioen Gizarte Elkartea (GBGE):** urriaren 28an, Galdakaoko (Bizkaia) Galdakao Boluntarioen Gizarte Elkarteko (GBGE) boluntario talde bat La Palma Irlara joan zen, El Paso eremura, hain zuzen, herritarrei laguntza solidarioa emateko, besteak beste, Cumbre Vieja sumendiaren erupzioak teiltatu, ate eta leihoetan utzitako hautsa garbitzen eta kentzen laguntzeko.

1 PLACA-DIPLOMA

- ▶ **Asociación Galdakao Boluntarioen Gizarte Elkartea (GBGE):** El 28 de octubre, un grupo de voluntarias y voluntarios pertenecientes a la Asociación Galdakao Boluntarioen Gizarte Elkartea (GBGE) de Galdakao (Bizkaia) se trasladó a la Isla de La Palma, concretamente a la zona de El Paso, a fin de prestar ayuda solidaria a la población en diversas tareas, entre ellas, la limpieza y retirada de ceniza producida por la erupción del volcán Cumbre Vieja en tejados, puertas y ventanas.





20 AKREDITAZIO DIPLOMA BABES ZIBILEKO BOLUNTARIOEI

- ▶ Zerbitzuan 25 urte emateagatik hauei: Modesto García, Iñaki Ranjil, Francisca Sainz, Laura Fernández, Andrés Ayala, Iñaki Araolaza eta José Luis Ares.
- ▶ Zerbitzuan 10 urte emateagatik hauei: Iñaki Lario, Juan Ríos, Jabier Bravo, Iker Korta, Enrique Pastor, Luis Alberto Ubierna, Iker Arizmendi, Rubén Antolín, Zuriñe Fernández, Javier Domínguez, Josu Abaunza, Unai Ceberio eta Enrique Castañeda.

AINTZATESPEN DIPLOMA 1

Euskadiko Babes Zibileko boluntarioen tokiko erakundeak eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena daukaten erakunde laguntzaileei, zerbitzuan 25 urte emateagatik:

- ▶ **Zingira Zarautz-Zarauzko Babes Zibila.**

Beste alde batetik, uztailaren leian, Rodrigo Gartzia Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuordeak eta Amparo López Nafarroako Gobernuako Barne Departamentuko zuzendari nagusiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan egindako ekitaldi batean parte hartu zuten, hauek guztiak zoriontzeko: Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako foru aldundietako eta Euskadiko hiru hiruburuetakoko udaletako suhiltzaile-zerbitzuak; Bizkaiko Mendi Zerbitzua eta Bizkaiko Basalan sozietate publiko forala, eta Arabako Mendi Zerbitzua; izan ere, horiek modu solidarioan parte hartu zuten ondoko erkidegoan gertatutako baso-suteak itzaltzeko lanetan. Argi geratu ziren zerbitzu horien guztien maila profesional altua eta horien arteko koordinazioa.

20 DIPLOMAS ACREDITATIVOS A VOLUNTARIAS Y VOLUNTARIOS DE PROTECCIÓN CIVIL

- ▶ Con 25 años de servicio: Modesto García, Iñaki Ranjil, Francisca Sainz, Laura Fernández, Andrés Ayala, Iñaki Araolaza y José Luis Ares.
- ▶ Con 10 años de servicio: Iñaki Lario, Juan Ríos, Jabier Bravo, Iker Korta, Enrique Pastor, Luis Alberto Ubierna, Iker Arizmendi, Rubén Antolín, Zuriñe Fernández, Javier Domínguez, Josu Abaunza, Unai Ceberio y Enrique Castañeda.

1 DIPLOMA DE RECONOCIMIENTO

A las organizaciones locales de voluntarias y voluntarios de Protección Civil de Euskadi y a las entidades colaboradoras convenidas con el Gobierno Vasco con 25 años de servicio:

- ▶ **Zingira Zarautz-Protección Civil de Zarautz.**

En otro orden de cosas, el 1 de julio, el Viceconsejero de Seguridad del Gobierno Vasco, Rodrigo Gartzia, y la Directora General de Interior del Gobierno de Navarra, Amparo López, felicitaron, en el transcurso de un acto celebrado en el Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi, a los servicios de bomberos de las diputaciones forales de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba, de los ayuntamientos de las tres capitales vascas, al Servicio de Montes y a la sociedad pública foral Basalan de Bizkaia y al Servicio de Montes de Araba por su colaboración solidaria en las tareas de extinción de los incendios forestales declarados en la comunidad vecina, siniestros en los que pusieron de manifiesto su alto nivel de profesionalidad y coordinación.



11. JARDUNALDIAK ETA TOPAKETAK

11.1 TOPAKETA BOLUNTARIOTZAREN ARDURADUNEKIN

Martxoaren 12an *Euskadiko Udal mailako Babes Zibileko Talde eta Elkarteetako Arduradunen II topaketa egin zen*. Topaketa horretan 34 akreditazio-diploma banatu zitzaizkien Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian boluntariotzari buruzko hirugarren online ikastaroa gainditu zutenei.

11.2 ANDORRAKO BABES ZIBILA

Rodrigo Gartzia Segurtasuneko sailburuordea, maiatzaren 24an, Cristian Pons Tatjer Andorrako Babes Zibileko zuzendariarekin elkartu zen Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan, kudeaketaren eta arretaren arloko informazioa eta esperientziak trukatzeko.

Bilera horretan, Andorrako ordezkariak Zentroko instalazioak bisitatu zituzten eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari buruzko informazioa jaso zuten, eta horrela bi erakunderen arteko lankidetzaren indartzen doa.

11. JORNADAS Y ENCUENTROS

11.1 ENCUENTRO CON RESPONSABLES DEL VOLUNTARIADO

El 12 de marzo tuvo lugar el *II Encuentro de Responsables de Agrupaciones y Asociaciones de Protección Civil Municipal de Euskadi*. En el transcurso del mismo se hizo entrega de 34 diplomas acreditativos a aquellas personas que aprobaron el tercer curso online de voluntariado en la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

11.2 PROTECCIÓN CIVIL DE ANDORRA

El Viceconsejero de Seguridad, Rodrigo Gartzia, se reunió el 24 de mayo en el Centro de Coordinación de Emergencias de Euskadi con el Director de Protección Civil de Andorra, Cristian Pons Tatjer, para intercambiar información y experiencias en materia de gestión y atención.

En el transcurso del encuentro, la delegación andorrana realizó una visita a las instalaciones del Centro y recibió información acerca del Sistema Vasco de Atención de Emergencias reforzando de este modo la colaboración de ambas instituciones.

11.3 HONDARTZA, URTEGI, IBAI ETA IGERILEKUEI BURUZKO JARDUNALDI TEKNIKOA

Maiatzaren 24an, Euskadiko salbamenduko eta sorospeneko zerbitzuetako hogeit hamar koordinatzaile inguruk parte hartu zuten Hondartza, Urtegi, Ibai eta Igerilekuei buruzko ohiko Jardunaldi Teknikoan. Horretan, leku horietan gertatu ohi diren larrialdiei buruzko hainbat alderdi landu ziren.

Jardunaldia urtero egiten da bainu-denboraldia hasi aurretik. Egun batzuk geroago, LAEMZko teknikari batzuek Bilbon USEC CONGRESS-en parte hartu zuten.

11.4 LARRIALDIEI BURUZKO LEHEN KONGRESU NAZIONALA

Ekainaren 9an, Rodrigo Gartzia Seguritasuneko sailburuordea, Ricardo Ituarte Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria eta Iñaki Inoriza LAEMZko Planifikazio Arloko arduraduna Larrialdiei buruzko Lehen Kongresu Nazionalan egon ziren. Kongresua Madrilgo Babes Zibileko Eskola Nazionalan egin zen eta, besteak beste, urtegien araudiarekin lotutako alderdi batzuk landu ziren.

Euskadiko ordezkariak azpimarratu zuten nolako garrantzia daukan Zadorra sisteman azpiegitura hidraulikoak kudeatzea, horren bidez uraldietako emari handienak murriztea lortzen baita eta uholdeen kudeaketan oinarritzeko tresna baita.

11.3 JORNADA TÉCNICA DE PLAYAS, PANTANOS, RÍOS Y PISCINAS

Trafikoko zuzendariak, Euskadiko Stop Bide Indarkeria elkartearen jarduera baten esparruan, trafiko-istripuetako biktima guztiak oroitu zituen, Bilboko Udaleko eta Bizkaiko Foru Aldundiko agintariekin eta Bide Seguratasunaren arloko fiskalarekin batera. Zuzendariak hil diren biktimak eta haien senideak gogorarazi zituen eta Eusko Jaurlaritzaren Seguratasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak istripuak murrizteko, errepideetan arrisku-jokabideak zuzentzeko eta kolektibo zaugarriak babesteko egiten dituen ekintza nagusiak azaldu zituen.

PROGRAMA EUROPARRETAN PARTE HARTZEA

Trafiko Zuzendaritzak Europako proiektu hauetan parte hartu du: Arco Atlántico 3. fasea eta EU-EIP (European ITS Platform), Europa barneko errepideen sarean ITS (Intelligent Transport Systems) zerbitzuen eta sistemen ezarpena sustatzeko helburua daukana.

DÍA MUNDIAL EN RECUERDO DE TODAS LAS VÍCTIMAS DE ACCIDENTES DE TRÁFICO.

Lugar: Bilbao.
20 de noviembre.

La directora de Tráfico recordó a todas las víctimas de accidentes de tráfico en el marco de una acción desarrollada por la asociación Stop Violencia Vial de Euskadi, junto a autoridades del Ayuntamiento de Bilbao, la Diputación Foral de Bizkaia y la Fiscalía de Seguridad Vial. En su intervención recordó a todas las víctimas y familiares de personas fallecidas y explicó las principales acciones que se llevan a cabo desde la Dirección de Tráfico del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco para frenar los accidentes, corregir los comportamientos de riesgo en carretera y proteger a los colectivos más vulnerables.

PARTICIPACIÓN EN PROGRAMAS EUROPEOS.

Participación de la Dirección de Tráfico en los proyectos europeos Arco Atlántico fase 3 y EU-EIP (European ITS Platform), cuyo objetivo principal es impulsar la implantación de sistemas y servicios ITS (Intelligent Transport Systems) en la red transeuropea de carreteras.

WEB-MINTEGIETAN PARTE HARTZEA

ALDAKETA-URTEA BIDE-SEGURTASUNARI ETA MUGIKORTASUNARI DAGOKIONEZ

Webinar.

Urtarrilaren 25a

Sonia Díaz de Corcuera Trafikoko zuzendariak Fesvia-
lek sustatzen duen webinar horretan parte hartu zuen Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentrotik, eta harekin batera egon ziren Pere Navarro DGTko zuzendaria, Ramón Lamiel Servei Catalá de Tránsit-eko zuzendaria eta Jaume Bonell Andorrako Mugikortasun Saileko zuzendaria. Besteak beste, gai hauetaz hitz egin zen: pertsonen mugikortasunaren gaineko lege-aldaketak eta nola jarraitzen duen pandemiak bide segurtasun-
nean eta mugikortasun-eragiten. Trafikoko zuzendariak Euskadiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Estrategiaren (2021-2025) ildo nagusiak azaldu zituen, estrategia horrek kolektibo zaugarrienen babesaren alde egiten baitu (motor-gidariak, txirrindulariak, Mugikortasun Pertsonalerako Ibilgailuen erabiltzaileak eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak).

MUGIKORTASUN DATUEI BURUZKO ON LINE TAILERREAN PARTE HARTZEA

Uztailaren 12an

Mugikortasun datuei buruzko tailerrean parte hartu da, Espainiako ITS datuen Fusio Komitearen barruan garatzen ari den Simulazio-gida baten esparruan. Gida horretan jasota dago trafiko-eta garraio-modeloekin lotutako guztia, haien oinarrietatik hasita, horiek erabiltzeko eta balidatzeko irizpideetarako; eta horrekin lortu nahi da gure herrian simulazioaren kultura handitzea eta sektore horretan lan egiten duten eragile guztien onarpena daukaten parametro komunak ezartzea.

PARTICIPACIÓN EN SEMINARIOS WEB.

UN AÑO DE CAMBIOS EN SEGURIDAD VIAL Y MOVILIDAD

Webinar.

25 de enero.

La directora de Tráfico, Sonia Díaz de Corcuera, participó en esta webinar desde el Centro de Gestión de Tráfico de Euskadi, impulsada por Fesvial, junto al director de la DGT, Pere Navarro, el director del Servei Catalá de Tránsit, Ramón Lamiel y el director del Departamento de Movilidad de Andorra, Jaume Bonell. Entre los temas abordados, los cambios legislativos en la movilidad de las personas y cómo sigue afectando la pandemia a la Seguridad Vial y la Movilidad. La directora de Tráfico repasó las líneas generales de la Estrategia de Seguridad Vial y Movilidad Segura y Sostenible de Euskadi 2021-2025, que apuesta por la especial protección de los colectivos más vulnerables (motoristas, ciclistas, personas usuarias de los Vehículos de Movilidad Personal y personas con diversidad funcional).

PARTICIPACIÓN EN TALLER ON-LINE SOBRE DATOS DE MOVILIDAD.

12 de julio.

Se ha participado en el taller on-line sobre datos de movilidad, en el marco de la realización de una Guía de Simulación que se está desarrollando dentro del Comité de Fusión de datos de ITS España. Dicha guía, que aborda todo lo relacionado con los modelos de tráfico y transporte, desde sus fundamentos hasta los criterios de uso y validación, pretende elevar la cultura de la simulación en nuestro país, estableciendo unos parámetros que sean comúnmente aceptados por todos los agentes que trabajan en este sector.

4.3 TRAFIKO ZUZENDARITZAREN JARDUNALDI PROFESIONALA

“KOLEKTIBORIK ZAURGARRIENENTZAKO BIDE
SEGURTASUNERAKO EREDU BERRI BAT EUSKADIN”

Aurrez aurreko jardunaldia.

- ▶ Lekua: CRAI Deustuko Unibertsitatea (Bilbao).
- ▶ Data: 2022ko azaroaren 16a.
- ▶ Parte-hartzaileak: Nazioarteko eta tokiko hizlariak. 117 pertsona.

PROGRAMA

ONGI ETORRIA:

Sonia Díaz de Corcuera. Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko zuzendaria.

HASIERA EMATEA:

Josu Erkoreka. Eusko Jaurlaritzaren lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua.

4.3 JORNADA PROFESIONAL DE LA DIRECCIÓN DE TRÁFICO

“UN NUEVO MODELO DE SEGURIDAD
VIAL EN EUSKADI PARA LOS
COLECTIVOS MÁS VULNERABLES”

Jornada presencial.

- ▶ Lugar: CRAI Biblioteca de Deusto (Bilbao).
- ▶ Fecha: 16 de noviembre de 2022.
- ▶ Participación: : Ponentes internacionales y locales. 117 personas.

PROGRAMA

BIENVENIDA:

Sonia Díaz de Corcuera. Directora de Tráfico del Gobierno Vasco.

APERTURA:

Josu Erkoreka. Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco.





1. PANELA:

Hiri-ingurune konplexuetan egindako joan-etorriei buruzko gogoetak. Teknologiaren zeregina mugikortasun eraginkorra, segurua eta jasangarria bermatzeko.

Mugikortasuna hirietan.

Jaume Barceló, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Estatistika eta Ikerketa Operatiboa Saileko irakasle emeritua.

Biarritzeko erdigunea udan oinezkoentzat egokitzea

Bertrand Hébert, Biarritzeko Hiri Estrategia eta Mugikortasun Saileko Mugikortasun – Aparkaleku Zerbitzuko burua.

2. PANELA:

Zaugarritasun kontzeptua osasun publikoaren eremuan. Mugikortasun berriari lotuta, irtenbide seguruak eta efizienteak lortzeko bidean

2021-2030 hamarkada: Bide Segurtasuna lehentasuna da osasun publikorako.

Itziar Larizgoitia, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria.

Seguru gidatzea? Arriskuaren pertzepzioa, zilindrada handiko motozikletetan istripuak prebenitzeko.

Miguel Ángel Serna, Motozaleen Elkarte Nazionalako eta Motozikleta Gidarien Eskola Nazionalako presidenteordea eta Gidatze Seguruari buruzko Ikastaroetako eta Prestakuntzako zuzendaria.

Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak versus Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailu komertzialak. Zer ikas dezakegu bien arteko desberdintasunei buruz?

Javier Aparicio, Bird Micromobility Company-ko Institutioekiko Harremanetako zuzendaria.

PANEL 1:

Reflexiones sobre los desplazamientos en entornos urbanos complejos. El papel de la tecnología para garantizar una movilidad eficiente, segura y sostenible.

La movilidad en las ciudades.

Jaume Barceló, profesor Emérito del Departamento de Estadística e Investigación Operativa de la Universidad Politécnica de Cataluña.

Peatonalización estival del centro de Biarritz.

Bertrand Hébert, Jefe del servicio de Movilidad y Estacionamientos del Departamento de Estrategia Urbana y Movilidad del ayuntamiento de Biarritz.

PANEL 2:

El concepto de vulnerabilidad en el ámbito de la salud pública. Avanzando hacia soluciones seguras y eficientes asociadas a la nueva movilidad.

Década 2021-2030: La Seguridad Vial es una prioridad para la salud pública.

Itziar Larizgoitia, directora de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

¿Conducción segura? La percepción del riesgo para la prevención de accidentes en motocicletas de gran cilindrada.

Miguel Ángel Serna, vicepresidente de la Asociación Nacional de Motoristas/Escuela Nacional de Conductores de Motocicleta y director de Formación y Cursos de Conducción segura.

Vehículos de Movilidad Personal versus Vehículos de Movilidad Personal comerciales. ¿Qué podemos aprender de las diferencias?

Javier Aparicio, director de Relaciones Institucionales de Bird, Micromobility Company.

3. PANELA:

Prebentziarako ezagutza globala Euskadin dibertsitate funtzionala duten pertsonen kolektibo zaurgarrian. Gizarte-eraldaketaren bidez prebentzioa hobetzeko metodologia.

EAEn dibertsitate funtzionala duten pertsonen hiri-mugikortasunari buruzko azterlana: hiri inklusiiboak sortzeko bidaia.

Rosa Mindeguia, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Psikologiak doktorea. Tilburg-eko Unibertsitateko ikertzailea, Herbehereak.

Gizarte-eraldaketa artearen bidez. Baketik eta Antzerki Foruma.

Elena Arambarri, Baketik Fundazioaren Antzerki Foruma programako zuzendaria.

Kaleetan eta errepideetan mugikortasun segurua lortzeko ekarpenak kolektibo zaurgarrientzat.

Nuria Pérez, Errepideko Ezbeharren Biktimen Laguntza Integralerako Psikologia Sailaren arduraduna AESLEMEEn.

Mundu Mailako Bide Segurtasuna: bizi-kalitate ekitatiboa lortzeko giltza.

Claudia Adriazola-Steil, Hiri-mugikortasun globaleko zuzendariondokoa eta Osasun eta Bide Segurtasuneko zuzendaria Hiri Jasangarrien aldeko WRI Ross zentroan (AEB).

ITXIERA:

Sonia Díaz de Corcuera, Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko zuzendaria.

PANEL 3:

Conocimiento global para la prevención del colectivo vulnerable de las personas con diversidad funcional en Euskadi. Metodología para mejorar la prevención desde la transformación social.

Estudio de investigación sobre movilidad urbana de personas con diversidad funcional en la CAPV: un viaje para crear ciudades inclusivas.

Rosa Mindeguia, doctora en Psicología por la Universidad del País Vasco UPV-EHU. Investigadora en la Universidad de Tilburg, Países Bajos.

Transformación social a través del Arte. Baketik y el Teatro Fórum.

Elena Arambarri, codirectora del programa Teatro Fórum Baketik Fundazioa.

Aportaciones a una movilidad segura para los colectivos vulnerables en calles y carreteras.

Nuria Pérez, responsable del Departamento Psicológico de Atención Integral a Víctimas por siniestro vial en AESLEME.

Seguridad Vial Global: la llave para una calidad de vida equitativa.

Claudia Adriazola-Steil, directora adjunta de Movilidad Urbana Global y directora de Salud y Seguridad Vial en el centro WRI Ross para Ciudades Sostenibles USA.

CLAUSURA:

Sonia Díaz de Corcuera, Directora de Tráfico del Gobierno Vasco.



4.4 INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA

4.4 INFORMACIÓN Y PUBLICIDAD



TWITTER

[@TRAFIKOAEJGV](#)

jarraitzaile	30.233	personas seguidoras
tuit	112.882	Tweets

(Metatua, 2022ko abenduaren 31n) / (Acumulado a 31 de diciembre de 2022)



YOUTUBE

[YOUTUBE.COM/TRAFIKOAEJGV](#)

bisualizazio	69.234	visualizaciones
bideo igo dira	59	vídeos subidos
harpidedun	60	personas suscriptoras



APP

[TRAFIKOAEJGV](#)

deskarga	1.751	descargas
----------	--------------	-----------



WEB / WEBGUNEA

[WWW.TRAFIKOA.EUSKADI.EUS](#)

hilean batez besteko sarrerak	103.610	media accesos mensual
----------------------------------	----------------	--------------------------



011

erantzundako kontsultak	19.598	consultas atendidas
Koordinazioan	37.887	Coordinación

HEDABIDEAK

2022. urtean, Trafiko Zuzendaritzak 10 prentsaurreko egin ditu, 48 prentsa-ohar atera ditu eta, guztira, hedabideen 58 eskaera izapidetu ditu.

2022KO DATUAK:

- ▶ Prentsaurrekoak: 10
- ▶ Prentsa-oharrak: 48
- ▶ Hedabideen eskaerak: 58

PUBLIZITATE-KANPAINAK

2022an hiru publizitate-kanpaina egin dira:

- ▶ “Berriro ateratzea”, Aste Santuan zabaldutakoa: apirilaren 7-13 eta 19-21 bitartean.
- ▶ “Zero Ikuspegia. Errepidean heriotza bakar bat ez baita onargarria” udan zabaldutakoa: uztailaren 1etik irailaren 4ra.
- ▶ “Zero Ikuspegia. Errepidean heriotza bakar bat ez baita onargarria” abenduako zubian zabaldutakoa: abenduaren 1etik 11ra.

MEDIOS DE COMUNICACIÓN

A lo largo de 2022, la Dirección de Tráfico ha realizado 10 ruedas de prensa, ha emitido 48 notas de prensa y ha tramitado un total de 58 peticiones de medios de comunicación.

DATOS 2022

- ▶ Ruedas de prensa: 10
- ▶ Notas de prensa: 48
- ▶ Peticiones de medios de comunicación: 58

CAMPAÑAS DE PUBLICIDAD

En 2022 se han realizado tres campañas de publicidad:

- ▶ “Volver a salir”, difundida en Semana Santa: del 7-13 y del 19-21 de abril.
- ▶ “Visión Zero. Ninguna muerte es asumible”, difundida en verano: del 1 de julio al 4 de septiembre.
- ▶ “Visión Zero. Ninguna muerte es asumible”, difundida durante el puente de diciembre: del 1-11 de diciembre.





4.5 DON'T BE DUMMY! ZUK EZ DUZU ORDEZKORIK PROGRAMA

2022KO BALANTZE-DATUAK

- ▶ 41 saio
- ▶ 35 udalerrri
- ▶ 12.451 parte-hartzaile

2022an, bigarren hezkuntzako gazteei zuzendutako kontzientziazio-programa ibiltaria 35 udalerritan egon da eta horietan 41 saio egin dira eta 12.451 ikaslek parte hartu dute.

Programa 2017an abian jarri zenetik, **63 udalerritako** (hiru hiriburuak barne) **174 ikastetxetara** heldu da eta horietara guztietara jende ugari bertaratu da. Guztira **172 ekitaldi** programatu dira eta horietan **40.676 ikaslek** parte hartu dute. Orain arte, parte-hartzaileek ikus-entzunezko programari buruzko balorazio positiboa egin dute. Ikasleen %98k inkestan baieztatzen du ohartu dela zein garrantzizkoa den segurtasuna trafiko-istripuak prebenitzeko.

Proiektu hori Trafiko Zuzendaritzak jarri zuen abian eta hauen laguntza ere jasotzen du: Stop Istripuak Elkartea eta Bizkarrezur-muineko Lesioa Aztertze Elkartea (AESLEME), baita istripuen ondoriozko larrialdi egoeretan arreta ematen duten langileak ere (Ertzaintza, Udaltzaingoa, Osakidetza, Salvamenduak eta Suteen Itzalketa, eta Larrialdiak ere bai).

4.5 PROGRAMA “DON’T BE DUMMY! PARA TI NO HAY REPUESTO(S)”

DATOS BALANCE 2022

- ▶ 41 sesiones
- ▶ 35 municipios
- ▶ 12.451 participantes

En 2022 el programa itinerante de concienciación dirigido a jóvenes de enseñanza secundaria ha visitado 35 municipios, en los que se han realizado 41 sesiones, con la participación de 12.451 estudiantes.

Desde su puesta en funcionamiento en 2017, el programa ha llegado a **174 centros educativos** de **63 localidades** distintas, incluidas las tres capitales vascas, en todas ellas con gran afluencia de público. En total, se han programado **172 eventos** en los que han participado **40.676 estudiantes**, que han realizado un balance positivo del programa audiovisual. El 98% del alumnado afirma que ha tomado conciencia sobre la importancia de la seguridad para prevenir accidentes de tráfico.

El proyecto, puesto en marcha por la Dirección de Tráfico, cuenta con la colaboración de la Asociación Stop Accidentes y la Asociación para el Estudio Medular Espinal (AESLEME), así como con la del personal de atención de las situaciones de emergencias provocadas por los accidentes (Ertzaintza, Policías Locales, Osakidetza, Salvamentos y Extinción de Incendios, así como Emergencias).

4.6 ARGITALPENAK ETA AZTERLANAK

2021eko istripu-tasari buruzko datuak biltzen dituen Urtekari Estatistikoa argitaratu da. Gainera, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan beste azterlan bat egin da; "DIVERSIVAL" izenekoa da eta dibertsitate funtzionala daukaten pertsonen hiri-mugikortasuna aztertzen du.

DIVERSIVAL. HIRI IRISGARRIAK SORTZEKO BIDAIA

DIVERSIVAL. HIRI IRISGARRIAK SORTZEKO BIDAIA izeneko azterlana Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak egin du, Trafiko Zuzendaritzarako. Ekimen horretan aztertzen dira desgaitasun fisikoa, kognitiboa edo ikusmen- edo entzumen- desgaitasuna daukaten kolektiboen mugikortasun-zailtasunak Euskadiko hiriburuetan.

Horretan 51 erabiltzailek parte hartu dute hiri bakoitzeko ibilbideak eginez, eta desgaitasuna daukaten pertsonen elkarreentako arduradunak eta Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko mugikortasun- eta irisgarritasun-arduradunek ere parte hartu dute.

Azterlan horren helburua da hobekuntza-arloak identifikatzea eta proposamenak egitea desgaitasun fisikoa, kognitiboa edo ikusmen- edo entzumen- desgaitasuna daukaten kolektiboen inklusioan, irisgarritasunean eta autonomiaren sustapenean aurrera egin jarraitzeko.

4.6 PUBLICACIONES Y ESTUDIOS

Se ha publicado el Anuario Estadístico con todos los datos de accidentalidad de 2021. Además, se ha realizado un nuevo estudio de investigación en colaboración con la Universidad del País Vasco, "DIVERSIVAL", que analiza la movilidad urbana de personas con diversidad funcional.

DIVERSIVAL. UN VIAJE PARA CREAR CIUDADES ACCESIBLES

El estudio DIVERSIVAL.UN VIAJE PARA CREAR CIUDADES ACCESIBLES, ha sido realizado por la Facultad de Psicología de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) para la Dirección de Tráfico. Esta iniciativa analiza las dificultades para la movilidad existentes en las capitales vascas para los colectivos con discapacidad física, visual, cognitiva y auditiva.

Cuenta con la participación de 51 personas usuarias que han recorrido las rutas de cada ciudad, además de responsables de asociaciones de personas con discapacidad y responsables de movilidad y accesibilidad de los ayuntamientos de Bilbao, Donostia y Gasteiz.

El objetivo de este trabajo es identificar las áreas de mejora y aportar propuestas para continuar avanzando en el camino de la inclusión, la accesibilidad y el fomento de la autonomía de todos los colectivos con alguna discapacidad física, cognitiva, visual o auditiva.



4.7 TRAFIKOAREN ETA BIDE SEGURITASUNAREN ARLOKO IKERKETA

TRAFIKOARI BURUZKO AZTERLANAK

Bide-segurtasun eza dagoen egoerei buruzko 18 azterlan edo txosten aztertu edo egin dira leku hauetan: Arespalditza, Ozaeta, Lagrán, Asua, Leioa, Arrankudiaga, Olaberria, Zumaia, N-637tik 16 irteera, Bermeo, BI-634 eta BI-3105 bidegurutzera, BI-634 eta BI-631 bidegurutzera Mungian, Las Carreras, Guardia, Kukularra, Itziarko tunela AP-8an, AP-8tik 12 irteera Oiartzunen. Horrez gain, txosten bat egin da, machine learning teknikak erabiliz, trafikoko intzidentzien arriskua iragartzeko sistema-proposamen bati buruzkoa.

GARRAIO BEREZIAK

Tresna berri bat garatzen ari da eta horren bidez hauexek egin ahal izango dira: garraio berezien neurriak eta pisuak kontuan hartuta, garraio berezi horiek egin ditzaketen ibilbideak kalkulatu; bidaiak baimendutako ibilbideetatik egiten diren kontrolatu eta horren jarraipena egin, eta sortzen den informazio guztia ustiatu garraio mota horiek kudeatzeko politiketan erabaki hobeak hartzeari begira.

KUDEAKETA-TRESNAK

GPS datuetan oinarrituta txosten historikoak egiten eta trafikoaren egoera monitorizatzen duen GeoTraffic aplikazioaren prestazioak hobetu dira.

INTENTSITATEAK KALKULATZEKO TRESNA

Aurreko urteetan garatutako intentsitateak kalkulatzeko tresnaren prestazioak hobetu dira; eta horretarako, eredu-kurbak hobetu dira eta emaitzak kalkulatzeko eta aurkezteko erabiltzen den datu-base historikoa handitu da.

4.7 INVESTIGACIÓN DE TRÁFICO Y SEGURIDAD VIAL

ESTUDIOS DE TRÁFICO

Se han analizado o realizado 18 estudios o informes sobre situaciones de inseguridad vial en los siguientes lugares: Respaldiza, Ozaeta, Lagrán, Asua, Lejona, Arrankudiaga, Olaberria, Zumaia, N-637 salida 16, Bermeo, cruce BI-634 con BI-3105, cruce BI-634 con BI-631 en Mungia, Las Carreras, Laguardia, Kukularra, túnel de Itziar en la AP-8, AP-8 salida 12 en Oiartzun. Además, se realizó un informe sobre una propuesta de sistema de predicción del riesgo de incidencias de tráfico, utilizando técnicas de machine learning.

TRANSPORTES ESPECIALES

Se está trabajando en el desarrollo de una herramienta que permitirá calcular las rutas posibles de los transportes especiales -en función de sus dimensiones y pesos-, el control y seguimiento de los recorridos efectivos por las rutas autorizadas y la explotación de toda la información generada para una mejor toma de decisiones en la política de gestión de dichos transportes.

HERRAMIENTAS DE GESTIÓN

Se han mejorado las prestaciones de la aplicación GeoTraffic que monitoriza el estado del tráfico y realiza informes históricos a partir de datos GPS.

HERRAMIENTA DE CÁLCULO DE INTENSIDADES

Se han mejorado las prestaciones de la herramienta para el cálculo de intensidades desarrollada en años anteriores mediante la mejora de las curvas-patrón, la ampliación de la base de datos histórica que se utiliza para el cálculo y la presentación de resultados.

BIDE SEGURTASUN ARLOKO AZTERLANAK EGITEKO ANALISI-TRESNAK

Road Safety izeneko tresnaren prestazioak hobetu dira, kalitate handiagoko bide segurtasuneko azterlanak lortzeko. Tresna horrek istripuetan egon ohi diren faktoreak eta kausak aztertzen laguntzen du, bereziki abiadura.

HERRAMIENTA DE ANÁLISIS PARA LA REALIZACIÓN DE ESTUDIOS DE SEGURIDAD VIAL

Se han mejorado las prestaciones la herramienta denominada Road Safety, que facilita el análisis de las causas y factores concurrentes en los accidentes, especialmente la velocidad, para la elaboración de estudios de seguridad vial de mayor calidad.

ITS EKIPAMENDU BERRIAK

Bi radar kabina berri instalatu dira, A-124 errepidean, Guardian, eta BI-30 errepidean, Kukularran. Gainera, errepideko aforo-ekipoen berrikuntza teknologikoa egin da, lakio magnetikoko aforatzaileen ordez zoruan intrusiokoak ez diren aforatzaileak jarritz, azken horiek radar-teknologia erabiltzen dute eta. Horrez gain, ikusmen artifizialeko kamerak instalatu dira, matrikulak irakurtzeko, trafikoari buruzko azterlanak eta analisiak egiteko helburuarekin.

NUEVOS EQUIPAMIENTOS ITS

Se han instalado dos nuevas cabinas de radar en la carretera A-124 en Laguardia y en la carretera BI-30 en Kukularra. Además, se ha procedido a la renovación tecnológica de los equipos de aforo en carretera, sustituyendo los aforadores de lazo magnético por aforadores no intrusivos en el pavimento que utilizan tecnología radar. Igualmente, se han instalado cámaras de visión artificial para la lectura de matrículas, con el fin de realizar estudios y análisis de tráfico.





4.8 TRAFIKOAREN KUDEAKETA ETA KONTROLA

TRAFIKOAREN ZAINZA-ETA KONTROL-KANPAINAK

Sonia Díaz de Corcuera Trafikoko zuzendariak, urtarilaren 27an, Ertzaintzak, Udaltzaingoeekin lankidetzan, 2022an egindako Zaintza eta Kontrol kanpainen egutegia aurkeztu zuen. Lan-bilera hori Bideokonferentziaren bidez egin zen Ertzaintzaren Erandioko egoitza zentraletik eta horretan egon ziren Aitor Lete Segurtasuna Koordinatzeko zuzendaria, Iñigo Ibarra Ertzaintzako Trafikoko Burutza Nagusiko intendentea, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Udaltzaingoen ordezkariak eta Ertzaintzaren Trafikoko Lurralde Unitateen arduradunak. 46 kanpaina planifikatu ziren hainbat arrisku-faktore (abiadura, arreta galtzea, alkohola eta drogak ...) begiratzeko eta arreta berezia jarri zitzaien motor-gidarien gidatzeko abiadura kontrolatzeari. Zaintza eta kontrol kanpainen helburuak Bide-Segurtasuna hobetzea eta trafiko-istripuen ondoriozko biktimen kopurua murriztea dira.

Prebentiboak:

- ▶ Alkoholemia-proba prebentiboak: 41.176
- ▶ Droga-proba prebentiboak: 3.072
- ▶ Kaskoaren- segurtasun uhalaren kontrolak. Zenbat ibilgailuri: 20.192
- ▶ Abiadura-kontrolak. Zenbat ibilgailuri: 699.311

4.8 GESTIÓN Y CONTROL DEL TRÁFICO

CAMPAÑAS DE VIGILANCIA Y CONTROL DE TRÁFICO

La directora de Tráfico, Sonia Díaz de Corcuera, presentó el 27 de enero el Calendario de las campañas de Vigilancia y Control que la Ertzaintza, en colaboración con las Policías Locales, llevó a cabo en 2022. A la reunión de trabajo celebrada por videoconferencia desde la sede central de la Ertzaintza, en Erandio, asistieron el director de Coordinación de Seguridad, Aitor Lete; el intendente de la Jefatura Central de Tráfico de la Ertzaintza, Iñigo Ibarra, representantes de las Policías Locales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa y responsables de las Unidades Territoriales de Tráfico de la Ertzaintza. Se planificaron 46 campañas, orientadas a vigilar diversos factores de riesgo (velocidad, distracciones, alcohol y drogas...), con especial atención al control de velocidad en el colectivo de motoristas. El objetivo de las campañas de control y vigilancia es mejorar la Seguridad Vial y reducir el número de víctimas por accidente de tráfico.

Preventivas:

- ▶ Pruebas preventivas de alcoholemia: 41.176
- ▶ Pruebas preventivas de drogas: 3.072
- ▶ Controles casco-cinturón. Número de vehículos controlados: 20.192
- ▶ Controles de velocidad. Número de vehículos controlados: 699.311



Istripua edo arau-haustea:

- ▶ Droga-probak, istripu baten ondorioz: 335
- ▶ Droga-probak, arau-hauste baten ondorioz: 1.161
- ▶ Alkoholemia-probak, istripu baten ondorioz: 7.781
- ▶ Alkoholemia-probak, arau-hauste baten ondorioz: 1.557

NEGUKO BIDEZAINITZA PLANA

2022an 4 aldiz aktibatu zen Neguko Bidezaintza Plana, Jarraipen eta Informazio Fasean (elur-kota 1000 metro-tik behera eta prezipitazio handiak). Aldi horietako batean igaro zen Fase Operatibora, prezipitazio handiekin batera, elur-kota 700 m-tik behera jaisteagatik.

Baliabide hauek mobilizatu ziren: Foru Aldundien / Autobideen elurra kentzeko makinak (205), Trafiko Zuzendaritzaren garabi astunak (7) eta Bide Koordinazio Postuak (patrulla bakoitzean ertzain bat eta Errepideen Kontserbaziorako teknikari bat, biek batera bideko sarearen egoera aztertzeko misioarekin, hiru Lurralde Historikoetan).

Accidente o infracción:

- ▶ Pruebas de drogas por accidente: 335
- ▶ Pruebas de drogas por infracción: 1.161
- ▶ Pruebas de alcoholemia por accidente: 7.781
- ▶ Pruebas de alcoholemia por infracción: 1.557

PLAN DE VIALIDAD INVERNAL

En 2022 el Plan de Vialidad Invernal se activó en 4 ocasiones en su Fase de Seguimiento e Información (cota de nieve por debajo de los 1.000 metros con precipitaciones importantes). De ellas, en una única ocasión se procedió a pasar a la Fase Operativa, por descenso de la cota de nieve por debajo de los 700 metros, acompañado de precipitaciones intensas.

Los medios movilizados fueron máquinas quitanieves de las Diputaciones Forales/Autopistas (205), grúas pesadas de la Dirección de Tráfico (7) y los Puestos de Coordinación Vial (patrullas compuestas por un/una agente de la Ertzaintza y un/una técnico de Conservación de Carreteras, con la misión de evaluar de forma conjunta el estado de la red viaria en los tres Territorios Históricos).

TRAFIKOKO OPERAZIO BEREZIAK

Udan, Irteera Operazioan, Gibraltarko Itsasartea Pasatzeko Operazioa bi urtez jarraian etenda egon ondoren, berriz ere ekin zitzaien seinaleztatzeko ohiko operazioei, uztaillaren azken asteburuan eta abuztuaren lehenengoan nazioarteko trafikoa arintasuna bermatzeko. Seinaleztatzeko horiek AP-1/N-622 lotunean (Etxebarri-Ibiñan) eta N-622/A-1 lotunean (Vitoria-Gasteizen) Madril-Burgos noranzkoan egin ziren. Aurretik, ekainaren hasieran, bide-sare nagusiko hainbat puntutan informazio-kartelak jarri ziren, Portugal/Marokora joateko nazioarteko trafikorako AP-8/AP-1/N-622/A-1 ibilbideari buruzkoak, baita ibilbidearen barruko erregai-hornikuntzarako eremu hurbilenei buruzkoak ere. Bi kartel mota horiek irailaren erdialdean kentzen dira.

Halaber, udako itzulera-operazioan, Armiñongo lotunean seinalizazio-operatiboak burutu ziren abuztuaren 18an, 19an, 20an, 21ean, 25ean, 26an, 27an eta 28an (A-1-en eta lehengo AP-1-en irteeraren arteko lotunea, Vitoria-Gasteizko noranzkoan). Operatibo bera burutzen Pazko Astelehenean (apirilaren 18an), Aste Santuko Itzulera Operazioa zela eta.

OPERACIONES ESPECIALES DE TRÁFICO

En verano, en Operación Salida, tras dos años consecutivos con la operación Paso del Estrecho suspendida, se recuperan las operativas habituales de señalización para garantizar la fluidez del tráfico internacional en el último fin de semana de julio y en el primero de agosto, en los enlaces AP-1/N-622 (en Etxebarri-Ibiña) y N-622/A-1 (en Vitoria-Gasteiz), sentido Burgos-Madrid. Previamente, a principios del mes de junio se instalaron carteles informativos de la ruta de tránsito internacional AP-8/AP-1/N-622/A-1 con destino Portugal/Marruecos en varios puntos estratégicos de la red viaria principal, así como carteles informativos de las áreas de repostaje más próximas ubicadas dentro de la ruta. Ambos tipos de carteles son retirados a mediados de septiembre.

Por otra parte, durante la Operación Retorno del verano, se realizaron operativas de señalización en el nudo de Armiñón los días 18, 19, 20, 21, 25, 26, 27 y 28 de agosto (enlace de la A-1 con la salida de la antigua AP-1, sentido Vitoria-Gasteiz). Este mismo operativo también fue ejecutado el Lunes de Pascua (18 de abril), con ocasión de la Operación Retorno de Semana Santa.



5. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK

5.1 ZEHAPEN-ESPEDIENTEAK ETA BAIMENAK

- ▶ Trafikoko araudiaren aurkako arau-hausteen ondoriozko zehapen-espeditente amaituak: 291.893
- ▶ Atzerriko matrikula duten ibilgailuen abiadura arau-hausteen ondoriozko zehapen-espeditente amaituak: 56.287
- ▶ Administrazio bidean ebatzi diren errekurtsoak: 3.731
- ▶ Ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zama banaezinagatik arau ezarritako gehieneko masak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuei emandako baimen bereziak: 5.566
- ▶ Osaera Euromodularreko ibilgailuei (EMS) emandako baimenak: 110
- ▶ Gidarien eskola partikularrei, horietako langileei eta ibilgailuei dagokienean, ibilgailuen alta-, baja- eta aldaketa-espeditenteen kop.: 382
- ▶ Lokalen eta ibilgailuen ikuskapenak: 121
- ▶ Zirkulazio-baimen bereziak zirkulazio-murritzaketak dauden datetan: 284
- ▶ Obrei eta beste ekitaldi batzuei buruzko jarraibideak: 5.200

5. PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS

5.1 EXPEDIENTES SANCIONADORES Y AUTORIZACIONES

- ▶ Expedientes sancionadores por infracciones a la normativa de tráfico finalizados: 291.893
- ▶ Expedientes sancionadores por infracciones de velocidad de vehículos con matrícula extranjera sin parada finalizados: 56.287
- ▶ Recursos resueltos en vía administrativa: 3.731
- ▶ Autorizaciones especiales para los vehículos que, por sus características técnicas o por la carga indivisible que transporten, superen las masas y dimensiones máximas reglamentariamente establecidas: 5.566
- ▶ Autorizaciones a vehículos de composición Euromodular (EMS): 110
- ▶ Expedientes de alta, baja y modificaciones de vehículos respecto a escuelas particulares de personas conductoras, personal y vehículos: 382
- ▶ Inspecciones de locales y de vehículos: 121
- ▶ Autorizaciones especiales de circulación en fechas restrictivas: 284
- ▶ Instrucciones de obras y otros eventos: 5.200



5.2 KIROL PROBAK

Trafiko Zuzendaritzak EAeko hiriarteko bideetatik guztiz edo zati batean igarotzen diren lasterketa, lehiaketa, txapelketa eta, oro har, kirol-probak baimentzen ditu eta horiei buruzko informazioa ematen du.

- ▶ Trafiko Zuzendaritzak emandako baimenak: 281
- ▶ Trafiko Zuzendaritzak tramitatutako eta DG Tk baimendu beharreko espedienteak. 22

EAEn egindako kirol-probetan baliabide hauek mobilizatu dira (Ertzaintzaren laguntzaren datuak):

- ▶ Agenteak: 2.360
- ▶ Autoak: 985
- ▶ Motoak: 1.211

5.3 BIDE SEGURTASUN BATZORDEA

- ▶ Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bilera (2022/03/03)
- ▶ Osoko Bilkuraren ez-ohiko bilera (2022/03/03).

5.2 PRUEBAS DEPORTIVAS

La Dirección de Tráfico autoriza e informa sobre las carreras, concursos, certámenes y pruebas deportivas en general, que discurran total o parcialmente por vías interurbanas de la CAE.

- ▶ Autorizaciones concedidas por la Dirección de Tráfico: 281
- ▶ Expedientes tramitados por la Dirección de Tráfico y a autorizar por la DGT: 22

Recursos movilizados en las pruebas deportivas celebradas en la CAE (datos de acompañamiento de la Ertzaintza):

- ▶ Agentes: 2.360
- ▶ Coches: 985
- ▶ Motos: 1.211

5.3 COMISIÓN DE SEGURIDAD VIAL

- ▶ Reunión del Pleno y del Comité Permanente (03/03/2022).
- ▶ Sesión extraordinaria del Pleno (03/03/2022).



5.4 INSTRUKZIOAK

- ▶ 1/2022 Instrukzioa: 2022. urteko trafikoaren zaintza- eta kontrol-kanpainak.
- ▶ 2/2022 Instrukzioa: agenteen berreste-idazkiak.
- ▶ 3/2022 Instrukzioa: zirkulazio-murrizketak dauden datetan zirkulatzeko baimen bereziak.
- ▶ 4/2022 Instrukzioa: arau-hausteen zerrenda kodifikatua aldatzea.
- ▶ 5/2022 Instrukzioa ZBO: auto eskolta erregimean eta 3 ibilgailu-taldera arteko konboi batean zirkulatzeko ibilbide baimenduak.
- ▶ Jarraibidea, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen aldaketa.

5.5 EBAZPENAK

- ▶ Ebazpena, 2022ko ekainaren 24koa, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko gailuak, zinemometroen osagarri, instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta disziplina helburu. (EHAA 2022/07/12)

5.4 INSTRUCCIONES

- ▶ Instrucción Nº 1/2022: Campañas de vigilancia y control de tráfico durante el año 2022.
- ▶ Instrucción Nº 2/2022: Escritos de ratificación de los agentes.
- ▶ Instrucción Nº 3/2022: Autorizaciones especiales para circular en fechas especiales.
- ▶ Instrucción Nº 4/2022: Modificación de la relación codificada de infracciones.
- ▶ Instrucción Nº 5/2022 ACC: Itinerarios autorizados para circular en régimen de autoescolta y en convoy de hasta 3 conjuntos.
- ▶ Directriz, Modificación de la Ley de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial.

5.5 RESOLUCIONES

- ▶ RESOLUCIÓN de 24 de junio de 2022 de la directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de dispositivos de captación y reproducción de imágenes complementarios de cinemómetros destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red vial de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (BOPV 12/07/2022).

- ▶ Ebazpena, 2022ko ekainaren 22koa, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko gailuak, zinemometroen osagarri, instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplina helburu. (EHAA 2023/01/09)
- ▶ Ebazpena, 2022ko urriaren 20koa, Trafikoko zuzendariarena, Ebazpen honetako hutsak zuzentzekoa: 2021eko urriaren 22ko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean zinemometroak zein irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko beste zenbait tresna osagarri instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplina helburu. (EHAA 2022/11/25)
- ▶ RESOLUCIÓN de 22 de diciembre de 2022, de la directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de dispositivos de captación y reproducción de imágenes complementarios de cinemómetros destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (BOPV 09/01/2023).
- ▶ RESOLUCIÓN de 20 de octubre de 2022, de la directora de Tráfico, de corrección de errores de la Resolución de 22 de octubre de 2021, por la que se autoriza la instalación y uso de cinemómetros y sus dispositivos complementarios de captación y reproducción de imágenes destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (BOPV 25/11/2022).

5.6 ZEHAPEN-ESKUMENAK BERE GAIN HARTZEA:

Trafiko Zuzendaritzak trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloan zehatzeko eskumena bere gain hartu du Berriatua udalerriko (2022ko apirilaren 11n) eta Altzo Udalerriko (2022/09/28) hiri barruko bideetan egiten diren arau-hausteei dagokienean.

5.6 ASUNCIÓN DE COMPETENCIAS SANCIONADORAS

La Dirección de Tráfico ha asumido la competencia sancionadora en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial por las infracciones cometidas en las vías urbanas de los municipios de Berriatua (11 de abril de 2022) y de Altzo (28/09/2022).



04.

JOKO ETA
IKUSKIZUNAK

JUEGO Y
ESPECTÁCULOS





AURKIBIDEA

1. JOKOA
2. IKUSKIZUNAK
3. IZAPIDETUTAKO ZEHAPEN
ESPEDIENTEAK ETA
ERREKURTSOAK
4. IKUSKARITZA LANA
5. TASEN ONDORIOZKO
DIRU-SARRERAK

ÍNDICE

1. JUEGO
2. ESPECTÁCULOS
3. EXPEDIENTES
SANCIONADORES
Y RECURSOS TRAMITADOS
4. ACTIVIDAD INSPECTORA
5. INGRESOS
POR TASAS

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, beste batzuen artean, ahalmen eta eginkizun hauek dagozkie:

- ▶ Ausazko jokoei buruzko politika publikoak egitea, eta jokoaren erregelamendu orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoan jokoak arautzen duen agintaritzari ematen dizkion ahalmenak eta egitekoak gauzatzea, honako hauekin lotuta, beste organo batzuen eskumenekoak ez badira: baimenak, txostenak, homologazioak, kontrolak, ikuskapenak edo zehapenak.
- ▶ Ikuskizun publikoei eta jolas-jarduerei buruzko legeriaren ondoriozko politika publikoak egitea, ostalaritzako jarduerak eta establezimenduak barnean direla. Horrez gain, legeria horrek Segurtasun Sailari ematen dizkion ahalmenak eta egitekoak gauzatzea, honako hauekin lotuta, beste organo batzuen eskumenekoak ez badira: baimenak, txostenak, homologazioak, kontrolak, ikuskapenak edo zehapenak.

Jokoaren arloan aipagarria da 19/2022 Dekretua argitaratu dela, Jokoaren Erregelamendu Orokorraren 120/2016 Dekretua aldatzen duena.

Aldaketa horren arabera, beharrezkoa da jokoaren plangintzaren berrikuspen-prozesuari ekitea. Helburua da sektorea behar bezala dimentsionatzea, neurri dinamikoak hartuz, joko-eskaintzaren ikuspegi orokorrekiko edo osoarekin, joko-eskaintzari sozialki onargarriak diren marjinetan eustea ahalbidetuko duena, betiere, arreta osasunaren babesean eta joko problematikoaren prebentzioan jarritz. Joko-lokaletarako muga berriak ezarri dira, lokal gehiago irekitzeko bete beharreko distantziak ere aldatu dira eta publizitatea murriztu da.

Dekretu horrek 3. xedapen iragankorrean hauxe ezartzen du:

“Erregelamendu honen 20. artikuluan ezarritako baldintzetan sarrera-kontrolik ez duten joko-lokalek kontrol hori instalatu eta funtzionamenduan jarri beharko dute, erregelamendua indarrean jarri eta 9 hilabeteko epean”. Hori dela eta, azaroaren 16tik aurrera derri gorrezkoa da joko-lokal guztietan sarrera-kontrolak ezartzea. Kontu horrek operadoreei esfortzu handia eskatu die, baita administrazio honi ere.

Zezen-ikusizun orokor zein tradizional guztiak berreskuratu dira.

Udalerrietan egin ohi ziren artifizio piroteknikoen ikuskizunak ere berreskuratu dira.

La Dirección de Juego y Espectáculos realiza el ejercicio de, entre otras, las siguientes facultades y funciones:

- ▶ Elaborar las políticas públicas relativas a los juegos de azar y ejercer las facultades y funciones que el reglamento general de juego confiere a la autoridad reguladora del juego en la Comunidad Autónoma de Euskadi, ya sean de autorización, informe, homologación, control, inspección o sanción, siempre que no correspondan a otros órganos.
- ▶ Elaborar las políticas públicas derivadas de la legislación relativa a los espectáculos públicos y actividades recreativas, incluyendo a establecimientos y actividades de hostelería, y ejercer las facultades y funciones que dicha legislación confiere al Departamento de Seguridad, ya sean de autorización, informe, homologación, control, inspección o sanción, siempre que no correspondan a otros órganos.

En materia de juego lo más reseñable ha sido la publicación del decreto 19/2022 sobre la modificación del decreto 120/2016 del Reglamento general del juego.

En dicha modificación se hace necesario iniciar el proceso de revisión de la planificación del juego para lograr el dimensionamiento adecuado del sector mediante la adopción de medidas dinámicas, con una visión global o de conjunto de la oferta de juegos y que permita mantener la oferta de juego en unos márgenes socialmente tolerables poniendo el foco en la protección de la salud y la prevención del juego problemático. Se establecen nuevos límites de locales de juego, nuevas distancias a cumplir para la apertura de nuevos locales, se restringe la publicidad.

En su disposición transitoria 3 dice:

“Control de admisión Los locales de juego que no dispongan de un control de admisión en los términos establecidos en el artículo 20 del presente Reglamento, deberán instalarlo y ponerlo en funcionamiento en el plazo de 9 meses desde su entrada en vigor”, esto ha llevado a que el 16 de noviembre sea obligatorio el establecimiento del control de acceso en todos los locales de juego. Este tema ha supuesto un gran esfuerzo tanto para los operadores como para esta administración.

Se han recuperado la totalidad de los espectáculos tauromatísticos tanto generales como tradicionales.

Jolas-jardueren, kontzertuen eta jaialdien kopuruari begiratuta, ikusten da 2020 eta 2021 urteetan 2019an baino askoz gutxiago egin zirela. 2022 urtean, aldiz, 2019an baino gehiago egin dira.

Adingabeek joko arloan egindako arau-hausteak 2021. urtean 7 izan ziren eta 2022. urtean 9 izan dira.

Arrazoi horregatik (adingabeak) ikuskizunen arloan irekitako espedienteak 2021ean 3 izan ziren eta 2022an 14 izan dira.

Nolanahi ere, JIUK etengabe zaintza-lanak egin ditu Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak kontrol-eskumena duen lokaletan.

JIUK eskuarki ikuskapenak egin ditu hauetan guztietan: diskoteketan, zinemetan, antzokietan eta museoetan, kiroldegietan, frontoietan, apustu-lokaletan eta joko-lokaletan, zezen-ikuskizun tradizionaletan, kirol-txapelketetan (gizonezkoen futbol profesionala, emakumezkoen futbol profesionala, saskibaloiko ACB, saskibaloiko Euroliga, emakumezkoen saskibaloia eta gizonezkoen zein emakumezkoen eskubaloia).

También se han recuperado los espectáculos con artificios pirotécnicos que tradicionalmente se han celebrado en los municipios.

Con relación a las actividades recreativas, conciertos y festivales, el número de los mismos en los años 2020 y 2021 fue muy inferior a los celebrados en el 2019. Sin embargo, este año 2022 se ha superado el número de espectáculos celebrados en el año 2019.

Las infracciones cometidas por menores en materia de juego pasan de 7 en el año 2021 a 9 en el año 2022.

Los expedientes por este mismo motivo, menores, en materia de espectáculos en el año 2021 fueron 3 y en el año 2022, 14.


Por parte de la UJE se ha mantenido una vigilancia permanente en aquellos locales cuyo control corresponde a esta Dirección de Juego y Espectáculos.

Las discotecas, cines, teatros y museos, los polideportivos, frontones y locales de apuestas y de juego, los espectáculos taurinos tradicionales, las diferentes competiciones deportivas (fútbol profesional masculino, fútbol femenino, baloncesto ACB, baloncesto Euroliga, baloncesto femenino y balonmano, tanto masculino como femenino, han sido objeto de la actividad inspectora de la UJE de manera habitual en los casos de celebración de los mismos.

ADINGABEAK JOKOA MENORES JUEGO

9


espediente 2022an
expedientes en 2022



ADINGABEAK IKUSKIZUNAK MENORES ESPECTÁCULOS

14

espediente 2022an
expedientes en 2022





1. JOKOA

Memoria honetan **Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren 2022ko jarduerari buruzko datu garrantzitsuenak agertzen dira**. Jokoarekin loturiko beste jarduera batzuk badaude, baina dokumentu honetan ez dira jaso. Izan ere, jarduera horiek toki-eremuan egiten dira – gainera, noizean behin – eta jende gutxiri lotuta daude. Horien artean herri-kirola, pilotalekuetako apustuak, etab. ditugu, eta eragin ekonomiko txikia dute.

Datuak eta estatistikak lantzeko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren iturri propioak erabili dira (Sistemen eta Kudeaketa Zerbitzua, Aholkularitza Juridikoa Zerbitzua, lurralde-bulegoak, baita Ertzaintzaren Joko eta Ertzaintzaren Ikuskizun Unitatea ere).

1. JUEGO

En la presente memoria, se ofrecen los datos más significativos referidos a la actividad de la Dirección de **Juego y Espectáculos durante el ejercicio 2022**. Existen otras actividades relacionada con el juego, las cuales no se han reflejado en el presente documento, que se desarrollan en ámbitos locales, y ocasionalmente, que tiene carácter minoritario, tales como el deporte rural, las apuestas en frontones, etc. cuyo montante económico es muy limitado.

Las fuentes utilizadas para la elaboración de los datos y estadísticas son las propias de la Dirección de Juego y Espectáculos (Servicio de Sistemas y Gestión, Servicio de Asesoría Jurídica, Oficinas Territoriales, así como la Unidad de Juego y Espectáculos de la Ertzaintza).

JOKO-JARDUERAK 2022AN ACTIVIDADES DE JUEGO 2022

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA / TOTAL
Empresa operadoreak / Empresas operadoras				
"B" makinak / Máquinas "B"	42	117	67	229 (3 fuera de la CAPV)
"C" makinak / Máquinas "C"	0	1	1	2
Apustu-makinak / Máquinas de apuestas	0	2	1	3
Joko lokalak / Locales de juego	8	47	24	79
Bingoak / Bingo	3	8	3	14
Joko-makinatarako baimenak / Permisos máquinas de juego				
"BH" ostalaritza-baimenak / Permisos "BH" Hostelería	1.228	4.472	2.160	7.860
"BS" Areto-baimenak / Permisos "BS" Salones	399	1.418	836	2.653
"BG" Bingo-baimenak / Permisos "BG" Bingo	24	47	19	90
"C" Kasino-baimenak / Permisos "C" Casino	0	24	28	52
"P" Apustu-baimenak / Permisos "P" Apuestas	401	1.038	629	2.068
Apustu-baimenak apustu-lokaletan eta gaitutako lokaletan / Permisos de apuestas en locales de apuestas y habilitados	117	391	217	725
Apustu-baimenak ostalaritzan eta bestelakoetan / Permisos de apuestas en hostelería y otros	284	647	412	1.343
Bingoak / Bingos	3	7	4	14
Edukiera / Aforo	893	2.145	1.431	4.469
Joko-aretoak / Salones de juego	32	111	66	209
Gaitutako apustu-lokala / Habilitado local de apuestas	6	12	4	22
Kasinoak / Casinos	0	1	1	2
Edukiera / Aforo	0	1.000	620	1.620
Apustu-lokalak / Locales de apuestas	5	16	9	30
Hipikako apustuak (Enpresak) / Apuestas hípicas (Empresas)	0	0	1	1
Zozketak / Rifas	5	2	1	8
Ausazko konbinazioak / Combinaciones aleatorias	52	98	41	191

1.1 MATERIALAREN HOMOLOGAZIOA

Joko-jarduerak garatzeko beharrezko material, sistema, makina, terminal, software-material, eta tresna guztiek homologatuta eta Jokoaren Erregistro Nagusian inskribatuta egon beharko dute. Betekizun bera bete beharko da horiek guztiak ekoizteko, ustiatzeko, merkaturatzeko eta lokaletan instalatzeko.

1.1 HOMOLOGACIÓN DE MATERIAL

